

400 anaitasuna 400


1981eko MAIATZA 411. Alea - 100pzta.

55 Minutu Lluís Maria Xirinacsekin

● Abortoaren inguruan hainbat haburu.

● "La bien aparecida" agertu zitzaigun Unben

● hitza eta mikroa geratzen zaizkigu



Porque lo nuestro es Vizcaya


Bizkaia geurea deláko

Couñe eu nostror

Zenue urtea guzan



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTKA



¡QUE BARBARIDAD!

Bide guztiak ahiturik, Del Burgo, Nafar parlamentutik egozteko bi soluziobide eduki dute sozialistek;

“Bata, Del Burgo bera parlamentuan egon dadin nahitanahiez onartzea.

Bestea, Parlamentu bera geldiaraztea”.

Baldintza hauen aurrean, euskaldun guztion maitagarria den PSOE Alderdiari ezker abertzale oro barruti hartatik jaurtikitzea burutu zaio. ¡Que barbaridad Sr. Arbeloa!

Ikusi egin ditugu diputatuak eta parlamentariak foralek indarrez egotzita. Ez genuen uste horrenbestearaino hel zintezkeenik Arbeloa Jauna. Ongi jokatu egin duzu, lasai egonen zara, ez duzu kontzientzi arazo handirik izanen. Nastatzaileak, istiluegileak, antidemokratak erditik kendu dituzu indarrez; hortakoz baitituzu zure aginpean foralak. Hortakoz jakina, bai. Del Burgo ostera Parlamentutik foralek egotzi? Ez. Hori ez, Arbeloa. Halakorik ez zaio egiten UCD eta faktikotarren kumeei: hortaz ez zenuke izanen nahiko aginterik. Del Burgo gainera ez da izan inongo istilurik sortzaile. Egin duen txerrikeriarik txikiena, Diputaziori, Nafar herriari, milioi batzu ohostea izan da. Ez, Del Burgo egozteak ez zaizu burutik ere pasatu. Errazago, erosoago, gartzelarik gartzela, komisaldegirik komisaldegi eramaten dituzten gisagaiso horiek botatzea. Errazago, erosoago eta guztiz kristaua. Donostian eta Bilbon EAJk berak gauza bera egiten baitu, bada.

Zure ebanjelioa oso konstituzionala izanen da Arbeloa baina kristaua ere ez da izan behar zure ebanjelio berri horren irakurketa, Kristo-ren ebanjelioarekin zerikusirik ez duela jakiteko. ETAk mitrailetarik euki arren, Arbeloa Jauna!!

DONOSTIAKO XVI JAZZALDIA

1981ko Uztailak 15-19ra

Euskal Herriko Talde Jazzaleen Lehiaketa (Uztailak 19an).

Jazzaldiaren barne, aurten jazzaleentzako Lehiaketa eratzen da, Euskal Herria muga daukalarik, honako Araudiaz:

1.a- Euskal Herrian bizi diren lagunek osoturiko jazz-taldeak partaide gerta daitezke.

2.a- Jazzez beren ogibi-dea ez daukaten talde guztiak —edozein motatan, edonolako joeraz— aurkez daitezke. Berorien artean Epai Mahaiak bereizketa egingo du.

3.a- Talde baten musikari batek nahiz gehiagok beste talde batetan parte hartzea es du Antolakundeak onartuko.

4.a- Ekitaldiaren luzapena antolakundeak erabakiko du, eta alde zuretik partaideei komunikatuko zaie, nahiko astirik izan dezaten.

5.a- Partehartzaile diren taldeak gastutarako dirurik jasoko dute, taldearen lagunen kopuruaren araueraz.

6.a- Epai Mahaiaren erabakia gaitzestezina izango da, harek nahi hainbat erabaki har dezakelarik,

7.a- SARIAK

Aurreko sariak izango dira:

- Lehenbizikoari 30.000 pta. eta trofeoa
- Bigarrenari 15.000 pta. eta trofeoa
- eta 10.000 ptako sari bat eta trofeoa solista hobena-
rentzat.

8.a- INFORMAPEN ETA IZEN EMATEAK

“JAZZALDIA”

Kultur eta Turismorako Ekintzetxea

Reina Regenta, z/n
Donostia - 3

Legazpiko herriari:

Ikastaroa bukatzeko zorian dagoenean kezka bat azaltzeko zuengana jotzen dugu. Euskararen normalizapenerako arazoa denez denon arazoa da. Horregatik lau haizetara adierazi nahi dugu.

Ziurki iaz ospaturiko “euskalduntze” kanpainaz oroitzen zarete. Horretan txartelak euskal esaera jatorrez zabaltu genituen eta era berean, itsaz-

kinak, orriak... Baina delako kanpaina horretan ere Udaletxeari zenbait eskaera egin genizkien. Oso egokia iruditzen zitzaigun, zeren horrela zabal-kundea eta lorpena handiago izango bait ziren. Gainera, herriko agintariak partaideak izan zitezkeen. Eskariak oso egokiak eta beharrezkoak ikusten genituen. Hala ere hor dituzue, itsasten dugu esku-titzean. Horregatik beren zehaztasunaz ez dugu ezer esango. Nor berak epai bitza. Bestalde, arazoa ez dago, oraingo, eskarietan. Prolema ez dago onartzean edo baztertzean. Begira.

Idatzi genuenak data hau zeraman: 1981.eko martxoak 31. Beraz, duela urtebete bat eta... Izan ere, ez gara horretaz ahaztu, baina udalgizokinak, ordea, bai. Hala dirudi, behintzat. Orduan, beren oroimén ahula zuzpertzeko beste bi gogoarazpen bidali genizkien. Lehenengoa iazko ekainaren 9an eta azkena aurtengo martxoaren 9an. Gainera, ahaztua izan ez zedin horrelako ohar txoa ipini genien: “... akats beran eror ez gaitzen zuen erantzuna jasotzeko hilabeteko epea ematen dizuegu...” Eta oraingoan ere hilabeteko epea joana zaigu. Orduan, zer egin? Udalgizon agurgarriok zain gauzkazueta jakizue. Legazpiarrok gogora diezaiegun!

Salaketa ximplea dugu. Ez da gehiagorik. Lerro tartean ez dago inolako azpijokorik ezta kolore arazorik ere. Tinturarik gabeko herritar arruntak bezala idatzi dugu euskal nortasunari uko egin gabe. Eta bukatzeko, bada ez bada ere, behin eta berriro gure nahia azaltzen dugu: eginda-ko eskariei erantzuna.

Zuen harrera ulerkorragaitik eskerrik asko.

Legazpiko Euskal Eskola.

Jose Maria Iparragirrenen heriotzaren Mendeurrena aurten betetzen delarik, Euskal Jaurlaritzako Kultur Sailak argazki lehiaketa bat antolatzen du.

OINARRIAK

- 1.- Parte har dezakete argazkilari guztiek, profesionalak izan ala ez.
- 2.- Gaia “Euskal Herria” izango da bere edozein al-

derditatik: paisajea, etnografia, giza irudia, naturaleza. etabar.

3.- Lanak zuri-beltzetan naiz koloretan aurkez daitezke, eta areago diapositibak, neurritz eta egituraz norberak nahi bezalakoak.

4.- Parte hartzaileek nahi hainbeste lan igor ditzakete, beste lehiaketa publikoetan sarituak izan ez badira.

5.- Lanak ezizen batekin etorriko dira. Sobre batean, ezizena, izena, deiturak eta partehartzailearen helbidea jarriko dira.

6.- Sari hauek jartzen dira:

Paperezkoak: lehen saria 25.000 pezeta, bigarren saria 15.000 pezeta, eta hirugarren saria 10.000 pezeta.

Diapositibak: lehen saria 25.000 pezeta, bigarren saria 15.000 pezeta, hirugarren saria 10.000 pezeta.

7.- Saritutako orijinalak Euskal Jaurlaritzaren Kultur Sailak beretzat gordeko ditu.

8.- Argazkiak eta diapositibak Urriaren 20a baino lehen hauetako helbide batera igorriko dira: Donostiako Kultur Ordezkaritza (Ardia 13), Bilboko Kultur Ordezkaritza (Mazarredo 63) eta Gasteizko Kultur Etxea (Paseo de la Florida).

9.- Lehiaketaren ondorioak prentsa eta irrati bidez aldarrikatuko dira, gainera irabazleei zuzenean adieraziz.

10.- Euskal Jaurlaritzako Kultur Sailaren asmoa ikusketa ibiltari bat antolatzea da.

11.- Lehiaketaren parte hartzeak berak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Oinarri hauekiko edozein ulerpen zalantza antolatzaileek erabakiko dute.

ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN LEHEN TXAPELKETA

Jon Sarasua Maritxalar, 15 urtekoa, eta Jon Iñaki Isazelaia, 13koa, biak Arrasateko Almen ikastolakoak, gertatu ziren txapel-dun, maila banatan, larunbatean, hilak 9, ospatu zen Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoan Txapelketan. Bigarren berriz, handien taldean, Iñaki Sarasua, 16 urtekoa, maila horretako bertso idatzi onenen saria irabazi

zuen bera. Txikien mailan Josu Garate, 12 urte, zuzen maiarra geratu zen bigarren bertso idatzi onenen saria berriz, Aitor Sarasuak, 13 urte, jaso zuelarik.

Beraz, bat ez beste, Deba Garaiko Almen ikastolaren inguruan lan egiten duen bertsolari taldera joan ziren sariguztiak, berori zuzentzen duen Patxi Goikoleak jaso zuelarik talderik onena aurkezten zuen arduradunari zigor-gokion saria ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputadu Nagusi den Xabier Aizarnak, Euskal Herriko Bertsolarien Txapel-dun den Xabier Amurizak, Joxe Muel Odriozola eta Imanol Murrutxuketa diputaduek, Imanol Lazkano bertsolariak eta epaimahiaren idazkari izan zen Xabier Marquet-ek banatu zituzten sariak. Iparraldeko Bertsolarien Biltzarraren izenean Mixel Itzainak sari bat ekarri zuen, eta SENDOA argitaler-txeak berriz, Txapelketan parte harturiko guztientzat libur-ruak banatu zituen.

Irakasleen Elkarteko Idazkari den Iñaki Zubeldiaren eskuetatik jaso zuten berriz saria Txapelketa hau anzintatzeko erabili den hormagiriaren egileek, Beasaingo Alkartasuna Lizeoko Alberto Martín eta Txema Zuriarrainek.

Goizez, Aurrezki Kutxa Muzizipalaren Zabalegiko Eskolan bildu ziren bertsolari guztiak —berrogeitairu guztira— epai-mahaikoekin batera, idatziko proba egin eta bertan bazkalduz.

Arratsaldeko saioari, Zarauzko Lizardi Elkarteko Musika Taldeak eman zion hasiera, eta bi ekinaldien tartean Elkar-te horretako dantza taldea ant-tu zen. Jaialdi guztiaren aurkezle, Joxe Mari Iriondo izan zen. Bertsolaritzaren inguruko zenbait jende ikus zitezkeen Baldan, hala nola, Gorrotxategi eta Larrañaga bertsolariak, Inozentzio Olea, Lurdo Gabiria, Rufino Iraola, Jexux Mari Etxezarreta, Pello Mari Esnak, Teodoro Hernandez-ona etabar. Han ziren ikastolako zenbait ikasle ere. Guztira milaren bat lagun.

Gogoratu beharra dago Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatatu duela Txapelketa hau. Euskaltzaindiarekin batera eta Aurrezki Kutxa Probintzialaren eta Donostiako Aurrezki Kutxaren laguntzaz.

anaitasuna

Ale honetan lankide izan gara:


I. Antiguada,
J.I. Basterretxea,
J.R. Bilbao,
J.R. Etxebarria,
M.J. Esteban,
M. Gereka,
I. Idigoras,
I. Lasa,
J.M. Pastor,
X. Portugal,
K. Santisteban,
L. Trask,
T. Trifol,
G. Urrutikoetxea,
R. Zumalabe,
Herria 2.000.

ANAITASUNA

Zabalbide 68 - entlo.
Tfnoa.: (94) 411 66 20

MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos.
Lege G.D.L. BI 1753 - 1967.
Printed in the Basque Country.




- 3.or.- **Artikuluburua**
- 4.or.- **Agiriak**
- 5.or.- **Aurkibidea**
- 6.or.- **Hitza eta mikroa geratzen zaizkigu.** Donostiako herri irratia 6 ordu euskaraz egunoro
- 9.or.- **Jon Castañares mintzatzen da.**
- 10.or.- **Hutsune politikoak.** Aberri Eguna, Maiatzak bat...
- 14.or.- **Udan ere euskaraz.** Udako Ikastaro intentsiboez ULIBARRI euskaltegiak antolatuta.
- 16.or.- **Hankaz gora**
- 18.or.- **Armen hazbideaz horma eta ezpataren artean.** Nazioarteko egoera larritsuaz: URSSek eta USAk mundua morroitzat hartu nahi.
- 22.or.- **Lluis M. Xirinacs-ekin hizketan**
- 28.or.- **Abortoaren inguruan hainbat haburu.** Abortoaren problematika harturik, Europa mailan, Italian batez ere, dauzkan konotapenak aztertzen dira.
- 32.or.- **Agur eta ohore...** Txuriurdinei bertsotan.
- 33.or.- **Krisia dela eta, idazten.**
- 34.or.- **Mari Gorringo, bihar eguzki ala euria egingo.**
- 36.or.- **Nik ere ikusi nahi nuke.** Unben agertzen omen den birjinarren ondoan espabilatu batzuek "Lourdes Español"-a atera nahi dute.
- 38.or.- **Besteak.** Honetan "herria 2.000" aldizkariak 3.urtemugara jotzen duelarik Anaitasunak aldizkari haren artikulu bat publikatzen du.
- 41.or.- **Euskara plazara**
- 42.or.- **Zinema**
- 43.or.- **"Bizi dezagun jaurlarizkera"**
- 44.or.- **Bermeo ala Bermio?**
- 45.or.- **Postak**
- 46.or.- **Akrostika**



HITZA ETA MIKROA GERATZEN ZAIZKIGU

Iragan Apirileko 21-ean jaio zen Donostiako Herri Irratian euskara hutsezko programakuntza berria. Arratsaldeko seiretatik gaueko hamabiak bitartean ematen da, onda media eta FM-ren bitartez. Euskal Gobernu eta Donostiako Herri Irratiko Zuzendaritzaren arteko akordio baten ondorio da: hark sei ordu kontratatzen ditu egunean, honek urtean lau milioi jasotzearen trukean.



Joxe Mari Otermin, programaren zuzendariarengana jo dugu albiste honen xehetasun gehiago jakiteko asmoz.

"Berez, aspalditik zetozen Herri Irratia Euskal Gobernuaren arteko harreman urtearen azkenerako, Abendurako, elkarrizketak ba zeuden komenio hau egin zitekeen ikusteko. Jauregiko gaua poliki joaten omen dituk eta gure kasu ere horrelako zerbait gertatu duk. Nos, urtebeterako kontratu bat berez egokitzen duk Urtarriletik Urtarrilera izatez baina ezak poliki joan dituk eta Apirilean bako hasi gaituk. Gauzak horrela zeudeh programazioa hezurmamitzeko, nondik nora jartzekean ikusteko prest al-nengoen esan dituk. Baiezkoa eman nuen dudarik gabe, Donostian Herri Irratian lanean ari zirela harremanetan jarri nintzen; nolabait Apirilaren 8-10 egun horietan programaren aurkarak rapen bat eman zen eta besteik gaua nola egin asmo genituen".

ANAI: Zer nolako programa da hori?

J.M. OTER.- Jende askok erabiltzen duen programa hitza eta bene-benetan esan nahi duenak nirekin duten programak direla. SEI orduko programagintza duk eta sei ordu horietan programa sota bat ematen duk.

Printzipioz esan behar diagu orduero formatiboak ematen dizkiagula Arratsaldeko seiretan hasten gaituk eta hor...

minutu irauten duen informatiboa zeukeagu, gutxi asko ordurarte agentziek zer eman duten adierazteko; gero, orduero, zazpi bat minutuko informatiboak zeudek. Bazekiagu, informatibo mundu honetan, beste zenbait irrati eta agentzietan zereginik ez dugula. Baina maila batetan behintzat txapeldun gaituk: eta duk, euskaraz ematean. Puntu hori positibotzat jo behar dela pentsatzen diat eta gure entzuleek batez ere, oraindainokoak, horrela jo dutela.

Lan asko ematen ziguk. Alde batetik, arratsaldeko seiretako informatibo hori egiteko alde zurretik paper asko ikusi behar duk teletipotan. Gero albisterik nagusienak aukeratu; horietatik zatirik garrantzizkoenak hautatu; gero itzuli. Horrek izugarritzko lana ematen dik. Eta une guztietan teletipoaren gainean gaxtaudek eta horrek ematen duen lana behar bada gogorrena izango duk sei ordu hauetan.

Egunero ospakizunak ematen dizkiagu 6-6.30 tara, eguraldiaren berri ere bai eta ondorengo orduetan izango dugunaren aurkibide bat. Sei t'erdietan ipuin txokoa zeukeagu, haurrentzat. Lehendik ere bazetorren programa ipuin txokoa zeukeagu, haurrentzat. Lehendik ere bazetorren programa hori Herri Irratian eta mantendu egin dugu. 7-8 tara musikal bat zeukeagu Martin Tejeria-ri esker. Bere gustoa alde batetik, eta jendearenak bestetik kontutan izanik egiten dik.

ANAI.- Euskarazko musika, ala edozein musika?

J.M.OTER.- Nolabait munduko kantagintzen aurrean konplexoak galdu behar dizkiagu, eta kasu honetan datorrena sartzen diagu, duintasun batetan. Flamenkoa ere sartu dik, benetako flamenkoa. Normaltasun baten barruan hartu eta munduko kantagintza nola dihoan ikusteko. Ez diat uste euskal kanta eta flamenko saioaren arteko burrukarik egon behar duenik, ez eta gutxiagorik ere.

8-8.30 bitartean, Iñaki Zubizarretari esker, euskal kulturari buruzko irratsaio berezi bat.

8.30 etan, "programa-zaku" edo horrelako zerbait zeukeagu. Bi arrazoiengatik. Alde batetik, Loiolatik egindako "Baserría" irratsaioa sartzen diagulako astean bi bider. Dso txukun teknikoak egina eta ez dibagazio hutsetakoa. Eta beste hiru egunetan herrietatik jasotako albisteak, elkar hizketa mundua etab landu nahi geniek. Horregatik esaten diat programa-zaku bat dela.

Bederatzietan gaxtaudek. Musikala berriro. Eneko Olasagastirekin "Rock-a abarretan" ("rock en alpargatas"), eta tituluak berak esaten dik programa honen kontzeptua nondik nora dihoan: gaur eguneko abangoardiako rock-a hartu eta horren inguruan programa bizi eta atsegin bat egin. Hori ere euskaraz, orain arte egin ez dena.

Hamarretan "kirolak" programa zeukeagu...

ANAI.- Lehen "Euskadin gaur" izaten

huen Bilbótik.

J.M.OTER.- ...Momentu horretan, kontuak egin genizkian. Orduero 6-7 minutu emanez gero, 6 orduetan, 40 minutu hituen informazioa huts-hutsean. Orduan, zer egin Bilboko informatiboarekin? Ikusten genian albisterik inportanteenak hor ateratzen hituala eta besterik zaila zela "Euskadin gaur" euskaraz ematean, eta bertan behera uztea erabaki genian.

Soluzio bezala berrogei minutu egiten dizkiagu mikrofonoaren aurrean eta beste erantzun bat ematen zaiola, pentsatzen diat, irakurleari. Hamarretan "kirolak" zeukeagu, "panorama de los deportes", eta oraingoz bi hizkuntzetara. Orain arte zori-tzarrez, kirolak erdal kutsua izan duelako gure artean. Eta, harriztekoa, duk, orain arte Orbegozori, Realeko presidenteari inork ez zioke elkarriketa bat euskaraz egin, eta bazekik. Denetarik egiten diagu: futbol, tenisa, pelota 10.30-12 tara Txaro Arteaga eta Julian Belokirekin. "Lagun artean" deritzan programa egiten diagu. Dagoenezko jende interesgarri bat pasa duk Lagun artean programa honetatik. Besteak beste, Realeko jugadore izandako sortu bat: Olano, Andoni Elizondo... Bestetik kultura munduko gizonak pasa dituk: Amatiño, Mikel Atxaga, Elixabete Garmendia. Gaiak ere hartu dizkiagu: "Zestoako Zine Topaketak" etab. Eta..., hori: gai horiek hartu eta patxada-patxadan lagun artean programa bat egin. Batez ere, jendeak gai hauri buruz gauzak jakinez gainera, euskaraz egin eta entzuleak entzuteko.

Esate baterako, kasu polit bat ba zeukeagu, Pasaiaiko euskaldun berri batek idatzirik karta bat hain zuzen. Eta esaten zian: "kontxo, nik euskaraz ikasi dut eta zertarako?, ia inork ez dit euskaraz ezer ematen eta?" Nolabait, honelako jendearentzat egi-

na zegok "lagun artean" programa bereziki.

Hori asteko programa duk. Gero larunbat eta igandeetan musika duk zutabe nagusiarena. Nik, esate baterako, aste-buruari buruzko programa bat zeukeat: nola aprobe-txatu, nola izango litzateke onuragarri, astean zehar zer nolako liburuak atera diren, zer erakusketa bisita daitezkeen...

ANAI.- Zenbat jende zaudete programa honetan?

J.M.OTER.- Momentu honetan fijo gaudenak, eta ez kolaboratzaile, Iñaki Zubizarreta, Txaro Arteaga, Julian Beloki, eta ni, Joxe Mari Otermin. Horiez aparte, eta kolaboratzaile mailan, Martin Tejeria eta Eneko Olasagasti musika egiten; Jone Etxebarri teletipoari hurbildik jarraitzen; Joseba Urzelai eta Klara Badiola haurren programa egiten, eta Gorka Reizabal kirol inguru horretan.

Gero, kontrolak eta aber, Herri Irratiak dituenak.

ANAI.- Zergaitik Donostiako Herri Irratia bakarrik?

J.M.OTER.- Ba ez nauk ni nor gauzak nola joan diren esateko. Niri kontratu bat eman zitzaidan, Gobernua eta Herri Irratia ren artean eta nolabait "hau martxan jarri zak".

ANAI.- Bestela, zer gauza berri dituzue?

J.M.OTER.- Gauza askotan Loiolako Herri Irratia bide irekitzaile handia izan duk. Jende batek baino gehiagok galdetu ziguk: "zer berri eskaintzeko asmoa duzue? Kontxo! Nobedaderik ez. Neurri batetan Loiolako Herri Irratian bere garaian egin zirelako, eta egiten direlako, Donostiakoan egiten zirelako eta Bilbon ere bai. Orduan zer



egiten duzue sei ordu hauekin? Eta erantzuna garbia duk: ba Loiolan koiunturalki edo noizean behin egiten ziren gauzak jaso eta sistematikoki marko baten barruan sartu, sei ordu hauen barruan, eta kitto.

Zeregin asko dagoela oraindik? Dudarik ez. Nobela bat grabatu omen dela entzun diat salbuespen bezala. Egunen batetan gauza izaten bagara entzun diat salbuespen bezala. Egunen batetan gauza izaten bagara txanpon aldetik eta jendearen aldetik zerbait egin nahi diagu.

ANAI.- Zuek emisorarik euskaltzaileen sona duzue.

J.M.OTER.- Sartu zen jendea euskaltzalea zelako. Ez zeukak beste misteriorik. Eta gure etorkizuna hor zegok. Beste irratiekin ez zeukagu konpetentzia sartzerik, retransmisioetan ez ezik. Euskal kulturari ordu asko eskaini izan zaiok.

ANAI.- Euskal kanta berriari ere bai...

J.M.OTER.- Loiolari %75 sor zaiok. Eta euskal kanteri gehientsuenak Loiolan ordu dexente "galdutakoak" dituk. Eta bertso-gintzari buruz berdin eta trikitixari ere bai.

ANAI.- Zuk behin baino gehiagotan aipatu duzu profesionaltasunaren arazoa. Ebaluazio txiki bat egingo al zenuke?

J.M.OTER.- Kristoren problema duk, maila guztietan, Euskal Herrian. Irratian, telebista, etab. nahi dizkiagu, baina zenbat jende zegok prestatu? Inor ere ez...

ANAI.- Hori, pertsona berri buruz. Gero material kontua aitatu behar diagu. Behin baino gehiagotan kexatu ohi gara zuen indar, potentzia faltaz.

J.M.OTER.- Emisora toki txarrean zegok, zaharra duk eta indar gutxikoa. Hala ere, Madrilan izan duk zuzendaria, ITAME etxe-



arekin; emisora berria eskatua zegok eta nik uste aurtengo uztaileko, gauzak ondo badihoaz behintzat, berria izango dela eta bazitekek lekuz aldatzea eta gure sei ordu hauek zabalkunde gehiago izatea.

ANAI.- Gestio guzti hauek zuen autonomiarekin izan al dira? COPE-n integraturik zaudete.

J.M.OTER.- Momentu honetan Donostiako Herri Irratiak karta garbi bat jokatu dik, Euskal Gobernuarena: bere eskuetan utzi. Milioi sorta bat sartu dik eta, nik uste hori COPE eta Euskal Gobernuaren arteko harremanen bidez garbituko dela. COPE-k interes handia zeukak lanean ari diren emi-

sora guztietaz jabetzeko. Guk, bestalde, izugarriko interesa zeukeagu hori gerta dadin.

ANAI.- Orain ez legoke gaizki zuen manifestazioa gogora ekartzea. Nola sortu zen?

J.M.OTER.- Diktadura erori zenean gertatu ikusi huen hemen jendeak medioen egarri zeukeala, eta Madrildarrak segituan hasi zuten kateari eusten. Manifestazioa egon honen aurkako lehen garrasia izan huen. Jipoi handia hartu genian Madriletik eta gauza asko esan huen gure kontra. Publikoki eta COPE-ren barruan bertan.

Baina manifestazioa, manifestazioa bertatik ezduk eta kitto. Madril behin eta bertan hasi huen zirikatzen. Gainera, Estatuak, Euzkurra jaunak COPE-ri beste irtenbiderik ez zion eman: RAPOSA (Radio Popular S.A.) sortu eta ba zirudik soziedade horri txan jartzeko asmoa dagoela, orain bertan COPE-k, Euskal Gobernuarekiko kontra hau kontutan hartu beharko dik eta ikusi diagu hirurok noia konpontzen gaituzten.

ANAI.- Azken galdere bat bukatzeko Euskararen normalizaziorako badakigu hiru zutabe behar ditugula: Hezkuntza, Administrazioa eta komunikabideak. Zein da puntu honekiko zuen zeregina?

J.M.OTER.- Gure sei ordu hauek guztia ez hiru helburu badizkitek. Bat, euskal maila guztietan erabili. Bestetik irratiko teknika eta jende berriari ateak zabaltu; erabiltzeko bezala, euskaraz duintasun batekin egiteko Hirugarrena, euskara behar duen jendearen eman: jende asko zegok Donostian euskaratik, galdutakoek erreuperatzen, etab. bestela lanean, komunikabideetan, zurrutarako giroan euskaraz ezer emango ez zaitelako, euskara eta euskaraz entzuteko aukerara emateko.



ALKATEA MINTZATZEN DA

ez egin den urte pareotan. Baina galdera zilegi horretaz gain, zailtasunak ere ba daude eta zenbaitek nahi izan bezan neurririk hartzea oso zaila izaten ohi da.

Niri dagokidanez, Bilboko udalez hitze- gin nezakeen. Denok omen genekien zer nolako oztopo eta egoera ikaragarri topa- tu genuen hemen bertan lehendabiziko- tik. Egoera ikaragarri hau askoz korapilo- tsuago zen ekonomi arloan. Beronek es- kuz eta oinez lotzen gintuen eta edozein lan edo zerbitzu abiadan ipintzeko diruak lotuta egon gara. Orduan, egoera hone- tan geundelarik, gure lan guztiak helburu bakar bat izan behar zuen: Dirurik lortzea alde batetik eta geunzkan medioak erren- tagarri bilakatzea bestaldetik.

Jakin ba dakigu halaber, praktikara era- man dugun zenbait neurri ez dela izan guztiz herrikoia baina nahitanahiezkoak izan dira neurriok, gure Udal honek zeuz- kan defizitak gairatzeko. Udalaren gehiengo osatzen duen Euzko Alderdi Jeltzaleak (gehiengo bai baina ez oro- korra) ez du izan nahi txalo errezenik ja- sotzea ez eta errakasta errazena ere. Gu- retzat helburu garrantzitsuena zera izan da: Arazo zailenak bideratzea; beren kausetatik eta errotik aurrera eramatea, baretasunez eta zintzoki.

Honela, zerga eta tasa batzuren baseak altxatu ditugu baina egia esateagatik hor daude eredutzat urte pare hauetan lane- tan ezarritako 1.200 milioi pezeta horiek. Udal honetan gu sartu baino lehen, beste- rik ez zen. Hor dago eredutzat, Arriaga Antzektokia. Lanotan ehunen bat eta piku milioi ezarri dira. Hemendik epe motze- tara Bilbotarrak berriro iganen dira Ar- txandara funikularrez eta teknikoek diote- nez, munduko hoberenetako bat izanen da.

Oso garrantzitsua da bestalde, berde- gunei ematen diegun lehentasuna. Bilbok oso gutti badu ere, horietako batzu kon- pontzen ari gara; besteak osatu eta azke- nik berriak ere egiten gaude.

Deustura urak eramane ditugu, antzina- ko arazo hau konponduz. Eredu guzi hauetaz gain, "ikusitako egiten ez diren gauzak" ere gehitu beharko ditugu. Ta- malez, ez dira ikusten baina premiazkoak dira egitea. Froga gisa, hor daude gastatu ditugun 1.200 milioi horiek. Baina horrela bada ere, Bilbok gehiago behar du eta arazo asko konponduz gabe dago orain- dik. Horregatik hain zuzen, ezin dugu asti- rik galdu atzerantz begiratuz. Aurrera bai. Aurreratze honetan itxaropen eta ilusio guztiak gurekin ditugu.

Jon Castañares
Bilboko Alkateak

Hona hemen Alkatearen eritzia. Be- randuegi iritsi zaigularik, ale hone- tan publikatzeko beharrean egon ga- ra.

Ba duela urte pare bat demokrazia berritortu sartu zela gure udaletan eta bidez- koa denez, auzotarrek galde dezakete ea zer nolako gauza on ala txar, positibo ala



HUTSUNE POLITIKOAK



Zulo beltz honetan lau egun aipagarri eman dira azken ilabete honetan: Maiatzaren lehena, Aberri eguna, Errepublika eguna eta Gernikako Bonbardeoaren 44. urteurrena. Egunok egoteaz batera, alferrikakoak izan dira, herria etxean eta solik gelditu delako.

Hemen ez da ezer pasa. Euskal Herria militarki bahiturik dagoen une honetan dena dago kontrolaturik. Hirurkada batetan zortzi mila eta zazpirehun pertsona igaro dira komisaldegietatik, baina ez da harriztekoa.

Hemen ez da ezer pasa mundu osoan berdina pasatzen ari delako, eta askoren minak garraisiak eskutatzen dituelako. Guatemalan zortzi pertsona erahiltzen dituzte eguneko, USAn arrazistek beltzak daramatzate hondamendira eta inor ez da konturatzen, Sobietar Batasunean gartzelaren zigorra edo atzerriratzea irabazten dute hango komunismoaren aurka altxatzen direnak, Asian ere erahilketak eta zigorrak modan daude boterearen aurka jasoten direnentzako.

Baina Euskal Herri honetan ez da horrelakorik ematen. Añamendiko loreak militarrek zapalduta daude, gure itsasertzeko arrantzaleak militar barkuek zaindurik

daude, oraindik ez dago Joseba Arregiaren erahiletaren erantzule ofizialik eta Tejero rekin batera estatu kolpearen egileak kanpoan dauden, zertan zebiltzen ez zekitelako.

Zulo beltz honetan lau egun aipagarri eman dira azken ilabete honetan: Maiatzaren lehena, Aberri Eguna, Errepublika eguna eta Gernikako Bonbardeoaren 44. urteurrena. Egunok egoteaz batera, alferrikakoak izan dira, herria etxean eta solik gelditu delako.

MAIATZAREN LEHENA, EGUN OKERRA

Langabezia, zapalkuntza eta faxismoaren aurka eta askatasun osoaren aldeko eguna zen; baina errepresio, batasun ezak eta desbideketaren jaiak izan zen mundu osoan ospatu eguna.

Kontenido aldetik nahiko aberatsa baldin bazen Maiatzaren lehen hau era alde

MAIATZAREN LEHENAK OINEZ 81

EUSKALAREN ERASOKETAREN KONTRA

tik nahiko iguingarria agertzen zitzaigun gure aurrean. "Langileen batasuna eta zapaldutako herrien alde" esaten zuten batzuk; nuklearen aurkako ekintzak ere bere tokia zuen burruka egun honetan; kapitalismoa urrintzekoa zen, besteek esana, jai; euskal eskola publikoaren alde agertzeko esango zuten beste askok; ez langabezirik ez zapalkuntzarik esan dezagun amaitzeko.

Hain aberats agertzera zihoan eguna zergatik gelditu zitzaigun hain eskasa? Kontenido aldetik hain aberatsa ematen zuen egunak zergatik batu zuen bere baitan hain jende gutxi? Zerbait ez du bere betekizuna ongi osotzen. Zerbait hori



Maiatzaren lehena, festa baino zerbait gehiago.



Monarkia, errepublika eta errepublikarren burua eta jabe.

aurkitzekoa da eta sindikatuak ezin daitezke gelditu poliziarri erru guztia bótatuz. Antolakizunetan era hutsune nabaria delakotan gaude. Adierazle edo era gabeko zeinu edo ekintzak ezin du, inolaz, bere adierazi edo kontenidoa argi eta garbi jendearen aurrean utzi.

Sindikatuak jendea batzea lortzen ez baldin badute ez ote da izango haien betekizuna oker antolaturik dagoelako eta langileria bere sindikatuaz fidatzen ez delako? Kaleko manifestaldiak gehiago zaindu behar dira langileak, heurak, desliluratuak aurki ez daitezten.

Baina, Maiatzaren lehenak izan behar lukeen beste betekizun bat du. Azkenaldi honetan zaindurik gabe dagoena, baina eztabaidatu behar dena, lanaren deuseztatzerako ekintzak ugaritzea hain zuzen. Ezkerraren azkenetariko helburu bat lanaren deuseztatzea dugu, lana dirua irabazteko bide bat baino ez delarik. Laborari langileak "lana" betetzen du bere jauberearen lurraldeetan porruak ereinduz, baina mehatzari batek bere etxe aurreko soroan porruak landatuz ekintza askatu bat egi-

ten du. Lana eta Ekintza Askatua ezberdinak dira.

Soldata baten trukean egin den "lana" gure gizartean fabrikari sartu den ordu beste erosteko litzateke. Ekintza Askatuak, oster, ez du bere azken helburua nire denbora besteenaz aldatzean, baizik eta bere baitan; hau da, lan ordainduaren trukez nire askatasuna EROSTEN dut inguruan dudari gizartean, baina Ekintza Askatua lantzean berak EMATEN dit behar dudari askatasuna inori zertan erosi beharrik.

Lanaren deuseztatzea norberak bizitzeko duen eskubidea erostearen beharra kentze progresiboa litzateke, erostearen behar kenduz gure bizitzako alienapena kentzen ari gara.

Lana deuseztuz eta denpora askatuz iraultza egiten gabiltza norbera bere gorputz, enplegu, ekintza, helburu eta lanen jabe izan dadin.

Helburu honek bere tokia behar zuen Maiatzaren lehen guztietan baina arras galdurik du, tamalez sindikatu eta alderdi iraultzaileen deklarapenetan.

II. ERREPUBLIKA, ITXAROPEN GALDUA

Apirilaren 14an ospatu behar zen 11. Errepublika Eguna hileta doinua jotea eskatu du norbaitek. Berrogei eta hamar urte joan ostean, orduan errepublikar zena gaur egun Juan Carlosen morroi bihurtu da, eta noski, abadeekin dabilena abadetu egiten denez gero...

Era bateko askatasuna eskatzeko bide bat baino ez baldin bada ere, Errepublika Eguna aurtèn zerbait gehiago izatea nahi zuen: Itxaropen Eguna, hain suertez. Zorritzarrez, zoriona biribidu egin da eta pilota bihurturik errepublikarren musturrak hautsi ditu.

Adierazpen askatasunari oda bat egiten dio Kostitutzio Monarkiko-militarrak, baina kasu honetan, gutxitan gertatzen denez, musika ixiltzea erabaki du "dano onerako" (Hazienda Ministeritzak dioan bezalaxe); jakina, tenore txarrek ez dute tokirik abesbatza onetan.

ABERRI EGUNA: EZTREBETASUNAREN EZAUGARRIA

Idazlan honen hasieran, Maiatzaren Lehenan sindikatuek izan duten joko nazkagarria aipatu bada, alderdiek Aberri



Batasun ezan zigor batua herriarentzat.

Egunaren aurrean izan zutena uharka berako dugu.

Gernikako 44. urteurrena ospatzen zelarik alderdi politikoek Euskal Herriko bitanleak bonbardeatzen zituzten etxean gelditzeko. PNVak, herrietako jaietan ikusten ditugun herri-kirolak dastatzeko eraman zituen bere afilituak, EEK, Iparre-girren herria, mila bat pertsona batzetzituen zinema batetan; eta HBkoak, Gernikan, poliziekin batera atletismoa egiten.

Ikustaldion aurrean jendea etxean gelditu da PCE eta PSOEtarren egin duten bezala. Hauek batasun eza aipatuz, herriak Aberri Egunerako egin diren delakulertezinak direla komentatuz.

Ez da egia osoa poliziek bakarrik apurtu zutela eguna, ez da egia osoa jenderik gehiena oportetan zebilela, eta ez da egia osoa ere ez, jendea politikaz nazkatutik dagoela, alderdi politikoek ekintza baizik.

Alderdiok baldin badira iraultzaren gariak, gaur egun ez dituzte eliteak baizik mogitzenimasak etxean, telebista ikusten edo kartetan jolasten, gelditzen diren bitartean.

Zerbait eraberritu behararen aurrean aurkitzen dira alderdi eta sindikatu guztiak, ea txunditzen gaituzten!

J.I.B.

Boletín de suscripción

Izena
Nombre
Kalea
Calle
Herria
Población

ZK

N.º

Bizitza

Piso

Herrialdea

Provincia



- ANAITASUNA** Hamabostkaria. Urteko harpidetza: 1.500 ptas.
Publicación quincenal. Suscripción anual: 1.500 ptas.
- ARGIA** Astekaria. Urteko harpidetza: 2.500 ptas.
Publicación semanal. Suscripción anual: 2.500 ptas.
- HERRIA** Astekaria. Urteko harpidetza: 2.250 ptas.
Publicación semanal. Suscripción anual: 2.250 ptas.
- JAKIN** Hiru hilabetekaria. Urteko harpidetza: 1.100 ptas.
Publicación trimestral. Suscripción anual: 1.100 ptas.
- SASKI-NASKI** Hilerokoa. Urteko harpidetza: 900 ptas.
Publicación mensual. Suscripción anual: 900 ptas.

Hartu nahi dut.
Deseo suscribirme a:

X batez jar ezazu harpidetu nahi duzun aldizkaria.
Señale con una X la revista o revistas a las que quiera suscribirse.

Txartel hau bete eta gero bidal ezazu mesedez 495 posta kutzara. Bilbo, PRENTSA EUSKARAZ karta azalean jarri.
Una vez rellenado este boletín, envíelo, por favor, al apartado 495 de Bilbao, poniendo en el sobre PRENTSA EUSKARAZ.

ORDAINKETA MODUA: Harpidea hartzen duzun aldizkariak zurekin sartuko da harremanetan ordainketa modua jakin dezazun.

FORMA DE PAGO: Cada revista, a la que se suscriba, se pondrá en contacto con usted para darle a conocer sus formas de pago.

Harpidedun berririk gabe, Euskal Prentsak ez du etorkizunik.

Eta aldizkariok desagertuko balira, ondorio larriak izango lituzke horrek Euskal Herriko kulturarentzat. Gure Herriaren ondare eta gure nortasunaren ezaugarri den euskarak, elkarri aditzeko erabiliz dugun tresna horrek, beren atea zabal-zabal irekitzen dizkioten komunikabide bakarrak galduta lituzke betirako.

Egoera honi erremedioa jartzeko, zure laguntza behar dugu.

EGIN ZAITEZ ALDIZKARIOTAKO BATEN EDO GEHIAGOREN HARPIDEDUN. BETE EZAZU TXARTEL HAU.

"Prentsa euskaraz" en izenean, mila esker.

NAFARROA OINEZ 81

EUSKARAREN ERASOKETAREN KONTRA
NAFAR HIZKUNTZAREN ALDE



Ekainak 21

Denok ALTSASURA

UDAN ERE EUSKARAZ

BARNEIKASLEGOETAN EUSKARAREN IKASKUNTZARAKO IKASTAROA

Nahiz eta azken hamabost urte hauetan, euskaraz mintzatzen den jendearen kopurua gutxitu, euskara, orain, inoiz baino egoera hobean aurkitzen da lehenik suspertze eta aurrerantzean berreskuratze arazoak seriooki planteiatzeko.

Euskararen suspertzeak adinekoen irakaskuntzan ere badu bere zerikusi garrantzitsua.

Eta arlo honetan azken urte hauetan hainbat urrats eman dira:

- adineko 40.000 pertsona euskara ikasten ari dira.

- Irakasleagoa profesionalizatzen doa gero eta gehiago

- Metodu berriak euskararen irakaskuntzari sikolinguistika eta didaktikaren azken aurrerapenak eransten diete.

- Euskararen batasunak erabat erraztu du lan hau

- Euskalduntze prozedura gero eta azkarragoa da, ikasleagoaren aldetik huts gutxiago jasotzen baita

- a) Astero lau edo bost orduko sistema tradizionalarekin ikastaro bakoitzean, hau da kurtso batetan, maila bat gainditzeko zen eta oinarrizko euskara eskuratzeko bost edo sei urte behar ziren sistema honek euskalduntze prozedura astitsua suposatzen du.

- b) Euskaltegi sistemarekin tarteko euskalduntze prozedura batetara igarotzen gara; egunero bi orduko klaseekin, hiru hilabetero maila bat gaindituz, honela oinarrizko euskararen jabe egiteko bi edo hiru urte beharko dira.

- c) Euskaltegi batzuk, batez ere udako hilabetetan beste sistema biziago bat darabiltzate: egunean lan ordu euskara ika-

siz hilabetero maila bat gainditzen delarik.

- d) Gaur egun hainbat lanetarako euskara jakitea beharrezkoa da, ondorioz, ikasleek ikastaro arinagoak eta eraginkorragoak eskatzen dute; horretarako barneikasleagoak eraten dira, honek, egunean zortzi ordu ikasiz, hamabostaldi bakoitzean maila bat gainditzea suposatzen du. Prozedura hau azkarragoa dela esan genezake.

Ikastaro guztiak astelehenetan hasiko dira urrengo asteko larunbatetan amaituz.

Hasera goizeko hamaiketan emango zaio, ordu honetan heltzen baita Oñatitik Arantzazura autobusa.

Autobus hau Bilbo, Donosti, Gazteiz, Iruña Zumarraga eta Eibartik datozten autobusekin batera etortzen da.

Hamaikaterdietan, gelak banatuko dira.

Hamabietan, lehen batzarra; taldeak eta ikasgelak banatuko dira eta irakaslegoaren aurkezpenaz ikastaroari hasera emango zaio.

Klase orduak hauek izango dira:


- goizetik: - lehen klasea 9tik-11tara
- bigarren klasea 11,30tik - 1,30 tara
- arratsaldean: - hirugarren klasea 4tik - 6tara
- laugarren klasea, 6,30tik - 8,30tara

Gure ikastaroetan erabiliko den metodoa HITZ EGIN izango da, Euskaltzaindiak eginekua eta adineko pertsonak euskalduntzeko gomendatzen dena.

HITZ EGIN metodoa era honetara zuzentzen da gure mailekin: Lehen maila: Hitz Egin lehen liburua ematen da

2. maila: Hitz Egin 2. liburua erdiraino ematen da

3. maila: Hitz Egin 2. liburua bukatzen da



4. maila: Hitz Egin 3. liburua erdiraino ematen da

5. maila: Hitz Egin 3. liburua bukatzen da

6. maila: mintzamina lantzen, elkarrizketak maila

7. maila: alfabetatzen 1

8. maila: Euskaltzaindiako D maila


Lehen sei mailak oinarrizko euskararen jabetzea suposatzen dute. Sei maila hauek, —larogei orduko kurtsoetan— 480-500 orduko lana errepresentatzen dute.

Ikastaro hontan erabiliko ditugun materialak —Hitz egin metodoa beharrezkoa dute ikasle guztiak— hauek izango dira: fotokopiak, muralak, liburuak, kasetak eta oinarrizko euskararen ipuiak...

Material hau guztia, antolatzaileek ikasleagoaren esku ipiniko dute.

Aurten lehen aldiz, bideo-kasetaren bidez, filme eta dokumentalak ikustea posible egingo du.

guntza izango dugu. Honek, telebistaren bidez, filme eta dokumentalak ikustea posible egingo du.



"Lemoizko inguruetakoko bizilagun kezkatuak

LEINBIKE KOLEKTIBOAREN AURKEZPENA

Joan den Apirilean, Lemoizko Zentral Nuklearraren inguruetakoko 150 bizilagunek, Eusko Legebiltzarreari, Inkesta Batzordeko lanetan parte hartzea eskatu genion. Erakunde Autonomikoak berak sortutako Batzorde hori, Basordako kalan Iberduero eraikitzen ari den obraren etorkizuna erabakiko duen herri kontsultatutara batetara heltzeko prozesuan, lehen urratsa baita.

Inkesta Batzorde horren bidez egiten diren ikerketek, Zentral Nuklearrak guregan sortzen dituen kezkak batu eta argitu ditzaten hartu genuen Eusko Legebiltzarreari zuzentzeko erabakia. Kezka horiek, seguritate pertsonalari dagozkion arazo zuzenenagoetatik hasita bizitzeko komunitarioaren moldatzeari dagozkionetara doaz, esaterako, istripu nuklearraren arriskua, ebakuazio zibilaren sistemak, gure ekonomi produktio moduek osotzen duten errekurso naturalekiko inzidentzia, arrantzan, lurgintzan, abelzaintzan, lurraren balioan, zoluaren errentan, lurraldearekin gure komunitateak izan behar duen harremanen antolaketan, gure herri eta eskualdetako etorkizuneko hazkuntzan. Arazo guzti hauek dira Basordako obrek guregan sortzen duten larritasunaren arrazoia, orainarte ez baitigute den bezala erantzun, ez Iberduerok ezta Administrazio Zentralak. Behar beharrezkoa zaigu ba, arazo guzti hauei erantzuna ematea, gure botua erabaki dezagun, Legebiltzarrik hartutako ebazpena betetzen bada, edota Zentral Nuklearraren etorkizunari buruzko erabaki demokratikoari indarrezko oztopoak ipintzen bazaizkio gure ekin-tza kolektiboaren norabidea.

Honegatik LEINBIKE KOLEKTIBOAK ez du identitate seinale berezia, bere helburu bakarra, Zentral Nuklearraren eraikuntzak herriarengan sortzen duen ardura larria, Inkesta Batzordearen bidez, Eusko Legebiltzarreara hurbiltzea baino ez da. Ez dugu ba, eritzi taldea osotzen. Agiria sinatu genuen artean, Zentral Nuklearraren aldeko eta kontrako eritziak dituztenak daude eta baita oraindik inolakorik ez dutenak ere. Ez da bakoitzak Zentralaz duen eritzi, gure helburua determinatzen duen faktorea, Zentral Nuklearraren etorkizuna herri borondateak erabakitzearen alde jotzea baino. Hau lortzeko, Inkesta Batzordearen eta Lemoiz inguruetakoko bizilagun kezkatuen artean harremanetarako bideak jartzea beharrezkotzat jotzen dugu. Derrigorrezkoa da informazio sarea, montatzea hauzko eta herri bakoitzean, hauetan dauden kezkak batu eta, barkarka zein taldeka, Inkesta Batzordeari emateko. Eta alderantzizko prozesua, halebria, Inkesta Batzordearen ikerketen berri bizilagun kezkatuei itzuli, ezagutu eta baloratu dezaten.

Hauxe dugu helburu, Basordako instalakuntzak gure biziaren etorkizuneari sor ditzakeen ondorioak argitzeagatik kezkatuta dauden Lemoizko Zentral Nuklearraren inguruetakoko bizilagunekin konpartituta ikus nahi genukeen helburua.

Norbaitek kolektiboarekin harremanetan jarri nahi balu, bai bere ideiak, galderak, iniziatibak zein beste edozein gauza aurkezteko edota informazioa jasotzeko, idatz diezaigula helbide honetara:

LEINBIKE KOLEKTIBOAK
Aptdo. 62
MUNGIA-BIZKAIA

1981.eko Maiatzaren 5a.

BARNEIKASLEGOETAN EUSKARA IKASTAROAREN EGITARAUA

Zenbakia	Data	Tokia	Mailak
Lehena	Maiatza 25- Ekaina 6	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
2.	Ekaina 8-20	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
3.	Ekainaren 22- Uztaila 4	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
4.	Uztaila 6-18	Billaro	5,6, D maila
5.	Uztaila 6-18	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
6.	Uztaila 20- Abuztua 1	Arantzazu	2,3,4,5,6, eta Alfab.
7.	Uztaila 27- Abuztua 8	Arantzazu	D Maila
8.	Abuztua 3-15	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
9.	Abuztua 10-22	Billaro	3,4,5,6,
10.	Abuztuaren 17-29	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
11.	Abuztuaren 31-Iraila 12	Arantzazu	5,6, eta Alfabet.
12.	Iraila 7-19	Billaro	1,2,3,4,
13.	Iraila 14-26	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,
14.	Iraila 28- Urria 10	Arantzazu	1,2,3,4,5,6,

Matrikula eta argibideak:

Ikastaroaren prezioa 18.000 pezetakoa izango da: prezio horren barruan ikasketak, materiala eta mantenu osoa sartzen dira.

ULIBARRI EUSKALTEGIAN

Ald. Urkijo, 18, pla. ezk.

BILBAO-8

Tfn. 444 19 41

AMERIKARRAK BETI JAKINTSUEGI

Chicagoko "Inland co" taldeak dei baten bidez langile batzuk behar zituela aditzera eman zuen iragarki baten bitartez. Bere dei honetara hamar mila langabeko agertu ziren. Hantxe sortu zen giroak beldurtu egin zituen bertoko agintariak. Hau guzti hau konpontzeko edo aipatutako goimailako arduradun batzuek konponbide hau ematea erabaki zuten: lanbageko baikoitzari lau mila dolar ematea estatu hortatik at lanetan joan daitezzen.

EZ DIRA ONGI ADITZEN

Donostiako Herri irratia arratsaldero sei ordu euskaraz ematen ari dela eta HERRIA astekariak Bilbokoa eta Loiolakoa ez direla lehen bezala ongi aditzen esaten du. Zergatik ote da? Ez dakigu zergatik ote den baina hori ez da bakarrik Lapurdiko kontu bat. Hemen Bizkaian ez da entzuten Donostiako Herri irratia. Bilboko Herri irratia (frequentzia moduladaz) oso gaizki entzuten da Bilbo Handiko eskualdetik kanpo eta Loiolako irratia ia ia ez da inon entzuten edo eta entzuteko irratia antena bat edo kriston potentzia eman behar zaio. Azken hau, jakina, Bizkaian.

Zer gertatzen da? Txoritzar batek esan digu, Bilbo Herri irratikoek antenak Bilbo Handirantz eta Santanderrerantz zuzendu dituztela. Santoña-ko bizilagunak bertsotan ari dira jadanik eta bertako gurasoek ikastola bat jartzeko asmotan ez ote diren egongo galda daiteke. Hori inperialismoztat kontsidera daiteke.

Horregatik, beharbada, ez duzue aditzen Lapurdin lehen bezala Bilbo Herri irratia.

MONZON JAUNARI

Bere eriotzaren eguna gure buruetatik joanda baldin badago ere, bere izakeraren oihartzuna gure artean aurkitzen da aldizkari bik argitaratu dizkiguten olerki bi kontutan hartzen baldin baditugu. Hona lehena, Enbata aldizkariak aterea eta Roger Idiartek egina:

"Agur Telesforo jauna
Errotik Uskalduna,
Bihotzian sarturik barna
Aberriaren mina,
Agertu zira oso gizona,
Ezinago zuzena:
Hoi da zure orhitzapena
Galduko eztuguna. (Goizian
argi hastian doinuaz)"

Bigarren bat Goiz-Argiak agertzen zigun honela idatziarik:

"Basoko itzal, errekatxo,
Mendi, bide, larre, soro,
aritz, arto, sagar, garo...
anaitzat zaituet oro!!
Ilunaren besoetan
lurra dioakit iges...
Ortzi eder izarretan,
ageri zait irri parrez..."

PARLAMENTUA JAIETAN

Europako Parlamentuan batzarkide diren 36 lagun Herri Ameriketarako bidai batetan hiru miloi franko frantses gastatu zituzten, noski, eraman zituzten 67 itzultaile eta sekretariak nonbaitetik jan behar zuten. Baina krisi gogor honetan gaudelarik askoz hobe egon litzatekeen diru guzti hori beste zerbaiteko erabiltzea, ezta?



EZ DIRA AUSARTZEN

300 mila tonelada petrolio jaurti zituen itsasora "Amorco Cadiz" itsasontziak denporaldi luze bat dela Britainia aurrean. Petroliuntzi hau Standar Oil of Chicago taldearena da eta Britainiako kostaldean egin zuen mina, oraindik konpondurik gabe dago. Hiru urte pasatu dira istripitik hona baina britainarrek ez dute dirurik lortu konpania honekoengandik. Haurtegia 44.000 espediente daude, hauzia aurrera eramateko baina Mac Garre epaileak ez du pausurik ematen. Inor ez da ausartzen petrolioaren jaubeekin.

ALEMANIARREN ABERTZALETASUNA

Orain dela gutxi horrelako iragarki bat irakurri ahal zen Washington-eko egunkari batetan. USAn argitaratzen den astekari bat dugu "Washington Journal" deituriko hau eta alemanieraz kaleratzen da. Iragarkia hauxe zen: "Aberkide maiteok: Gure aberria gogoratuko dizuen zerbait nahi izango duzuelakotan gaude. Ez al da horrela? Jar ezazue zuen bihotzeko landarea Alemaniako lurrik honenean. 9,95dolarretako giro baten truke aipatutako lur hori bidaliko dizuet loropote batetan. "Ikusgarria benetan".

1981.eko Biztanleen Udal-Erroldoa (Padrón Municipal) bete nuen lehengo egunean, hiritar zibilizatu eta formalari dago-kion moduan. Mamotretu hori eskuetan hartzean nahiko poztu nintzen, inpresoa euskaraz ere zeudelako. Hainbat galderari erantzun ondoren, non heltzen naizen 9.era eta zera irakurri:

Daukazun titulu eskolar, akademiko edo profesionala: - Irakurtzen eta idazten EZ badakizu eta 10 urtekin gora badi-tuzu, jar ezazu "analfabetoa". Benetan, umore beltza dirudi irakurtzen eta idazten ez dakien bati "analfabetoa" idazteko eskatzea. Nahaste-borraste hau nondik datorren jakitea ez da gatxa: itzulpenetik, hau da, erdaraz "si no sabe leer ni escribir y tiene más de 10 años ponga "analfabeto" dakar, eta aditz guztiak bigarren ala hirugarren pertsona egoki izan daitezke (si (Vd/él) no sabe, ponga (Vd/él)), pertsona egoki itzuli duenak bigarren pertsonatzat jo ditu guztiak.

Irazkin honeguz ez dut gura esan inpresoa, orokorrean, txarto itzulita dagoenik, ezta gitxiagorik ere ez delako egia. Nik behintzat, osorik bete dut, eta ez dut izan erdarazko textura jar beharrik, eta honek, itzulpeneren egokitasuna frogatzen duela uste dut.

Ea orain zenbatek betetzen dugun euskaraz!!

EDDY

OHARRA:

Oharra:

"Bilbo gurea" 411.alean Anaitasunak argitaratu zuen artikuluan nahigabekoa sartu zitzaigun Tasio Erkiziaren lanean. Artikulu horretan sartu egin ziren akats, desegokitasun eta erderakada askok ez dute Bilboko zinegotziarekin zerikusirik. Egia esan Anaitasunak hartu zuen idatzirik lana, Tasiok berak egindako lantzat eman zuen eta irenstezina iruditu arren, zegoen modura argitaratzea erabaki ere bai. Okerra bestela zera izan da: Tasiok ez zuen halako eskriburik egin, gurekin lanean eta euskara ikasten dagoen lankidetakoa batek egin zuen hain zuzen. **A N A I T A S U N A.**

MITTERRAND, LEHENDAKARIA

Bai, nork espero zezakeen atzo, herenegun, gaurko gertaera? Batzuk, baina ez askorik.

Orain ordu bat dela, berria jakin dugu, arratsaldeko 8etan, eta barreak eta txalokak entzun ditugu, eta poz aurpegiak ikusi ere. Azkenean jendeak kaleratu ditu poza, itxaropena, tristezia edota mingostasuna, hainbeste barruan gorde ondoren. Azkenean, ba dakigu; batzu, erdia baino gehiago, lasai, pozik, itxaroten. Beste batzu, aldiz, baldurrez, haserre, gorriek desordena ekarriko omen baitute.

Frantsesen erdia baino gehiagok Giscard-en aurka eman du botua. Hori zen hainbesteren helburu nagusia, Giscard botatzea, edonola ere, Giscard Eliseon gehiagotan ez ikustea. Eta lortu egin dute.

Zorionez, pozaz beterik, onartu behar dut oker nengoela nire azken artikuluan: Giscard ez da garaitu; nire pesimismoak ez du arrazoirik eduki.

Ba dira 15 egun auteskunderen lehen aldia egon zela, eta ezin zitekeen handik ondoriorik atera: botuak askotan kontatu ditugu guztiok, eta ezkerreko botu guztiak batuz gero, ez zen gehiengo ateratzen. Zer gertatuko zen giscardiar ez ziren eskumakoekin? Zer ekologistekin? Chirac-ek Giscard apoiatzen zuen, baina Marie France Garaud-ek, botu zuria eskatzen zuen; bestalde, ezkerreko guztiak Mitterrand-en alde, eta ekologisten kandidatoa, Lalonde, inoren alde agertu gabe, beste lider ekologistak, zerbait-en alde edo kontra agertuz gero, Giscard-en kontra.

Azken astean asko igon zen kanpaina honen bero-maila; inola ezin esango nuen nik 15 egun duela hainbeste interes eta

eztabaida egongo zenik; azkenean jendea entzuten zen diskutitzen leku guztietan, metroan, kalean, lan-lekuetan; bata edo bestearen alde, baina eztabaidatzen, eta hori, batez ere, Giscard-ek eta Mitterrand-ek telebistan debate bat eduki zutenetik, bi orduetan zehar, eta bi periodisten galderaz lagundurik, elkarren kontra aritu ziren biak; bai barne eta kanpo-politika, bai ekonomi arazoak ikutuz.

Ene ustez, ez bata ez besteak ez zuen irabazi elkarrizketa hartan; Giscard-en hitzak hutsak izan arren, beraren irudia alaiagoa zen; Mitterrand, aldiz, ironiko eta lasai agertu zen bi orduetan zehar.



Eta hola, gaur arte, dudatan bizi izan gara, gehienek Giscard-en garaipenean sinesten genuelarik.

Nola, ba, erresultatu hau? Ba dirudi lehenik Chirac-i botua eman zioten askok, Mitterrand-i eman diotela orain, batez ere, Giscard-i ez ematearren, jakina; edozein kasutan, ezkerreko lehendakari dauka Frantziak aurrerantzean.

Orain, laster, hauteskunde legislatiboak egin beharko dira, agian udan baino lehenago, eta horietan ere ezkerre garaituko balitz, aske edukiko lituzkete eskuak sozialistek aldaketak egiten hasteko.

Zer egingo dute? Noraino helduko dira? Inork ezin du orain jakin. Beraien programa ez zen erradikalegia, baina bigunegia ere ez, eta komunistek gobernuan parte hartuko balute, beharrezko indar-oreka lortuta, gauzak argituko ziren.

Agindutako aldaketak martxan ipintzeko momentua heldu da, ba:

Lan-orduetako gutxipena (35 ordu aste-ko), soldata minimoaren igotea, lan-postu berriak sortzea, programa nuklearra garrantzea (nahiz eta orain dagoena martxan gorde) bankuak eta zenbait enpresa nazionaltzea...

Hau dena jokuan dago eta jokua koloa gobernuan eta parlamentuan egongo den orekak emango du, hau da, komunistek eta ezker muturrak edukiko duten garrantziak, eta baita, alderdi sozialistaren barruko talde desberdinenak, zeren ez baitira denak gauza askoz eritzi berdinekoak.

Baina Frantziako 52%ak idea bat dauka gaur amankomunean: uff! Giscard ez da pasatu...!!!

Maria Jesus Esteban

ARMEN HAZBIDEAZ HORMA ETA EZPATAREN ARTEAN



Madriilen ematen ari den "Nazioarteko segurtasun eta lankidetasun" deituriko bilera internazionaletik entzun egin dugun bezalaxe USA eta URRStarrak prest daude pakearako bide batzuk zabaltzeko.

Dena den, zaharrak eta gehiegitan erabiliak dira aipatu dizkizuegun hitzok gaurko egoera honetan besterik gabe iruntziteko. Bakeaz ari direla armak hobekitzen doaz eta munduko beste herririk gehienak ezpata eta hormaren artean aurkitzen dira.

Dauden bi blokeen erdian jesartzeko eta haien jangurea halan edo holan geldiarazteko beharrezkoa da Alineatubanako Herrien Elkartea.

ARAZOARI IRTENBIDE BAT

Denok ezagutzen ditugun bloke bi hauetatik aldentzeko, orain arte behintzat, egin den lanik nabarmenena Alineatubako Herriok egin dute. Herriotako arduradunek, Nova Delhin baturik aurtengo Otsailan, gogor ekin diote herri nagusiek herri txikien aurka daramaten zapalkuntzari. Kasureko aipa dezagun Argeliako arduradunak esan zuena. Argeliarren haburuen oinarria Hirugarren Mundua bai sartal-

Dena den, arrisku gorrian aurkitzen den talde honek bere irteera-proposamen emateko gai delakotan gaude. Ezinezko neutraltasun bat lortzea irribarregarria da, baina haien lana, munduaren aurrean, indar talde bat lortzea litzateke, orain arte dauden bi blokeen erdian jartzeko eta haien jangura hala edo hola geldiarazteko. Kontutan har dezagun, gainera, talde honetako kiderik gehienak Hirugarren Mundu horretan bazterturik dauden herriak direla eta haien gainetik jarrita dauden potentzia

Europari dagokionez, eztabaidarik mingotsena yankiek zabaldu nahi dituzten neutroi lehegailuez datza. USAtarrek Europan zehar jarri gura izan dituzten lehegailuek, besteekin gonparatuz, abantail handi bat ematen dute: bizidun guztiak hilarren, inguruak (etxeak eta abar) zutunik uzten ditu; hau da, pertsonak deuseztuz jabegoak ez dira apurtzen.

Europako gudoina zaintzeaz batera Hego Ameriketako mantentzea nahi dute USAko arduradunek sozialismoaren bideak herri zapalduok itzar ez ditzan. Ohiturazko erabilpenekin batera, (Txile, Argentina etb) egun ezagunena El Salvador-ean egiten ari direna da, baina aurretik Nikaraguan egitea nahi izan zuten eta geroago herriz herri joango dira amerikar kanti-nentea "desbideratu" ez dadin.

USAren kasua lehenago aipatu baldin badugu ez da izan URSSek bekaturik ez duelako, biok baititugu berdin xamarrak eta. Bietnameko arazoa ahaztu egitea nahi genuenean Polonia edo Afganistanekoa agertzen zaizkigu eta Libanokoa susmatzen ari gara.

Batzuk iraultza aipatuz eta besteek antiiraultza goratuz heuren kideen batzarrea sortzen dute: OTAN eta Warsoviako paktua, joko guztia Europan emateko prest.

Gudukatzeko bide maltzurrik ezagunena beti izan da norberaren etxea zaintzeko beste etxe batzuk erditik jartzea arerioaren ibilaldiak estuagoak izan daitezten eta itsasoan etxe egiterik ez dagoanez gero...

SUPRAHERRION BAKEARAKO BIDEA

Heuren bakerako egin duten lehen akordiorik ospetsuena SALT izenekoa dugu. Akordio honen sutabea biok indar berbera edukitzeaz datza; hau da, batek ezin du bere armen sofistikazioa gaitzetea besteak berbera egiten ez duen bitartean. Baina auskalo! horrelako egoeratan egiten diren armen sofistikaziook ez dira bakea seguruago izan dadin baizik.

bi hoietatik urruntzea nahi baldin badugu beharrezkoa daukatela arpegia ematea.

USA ETA URSEK MUNDUA MORROITZAT HARTU NAHI.

Batzuk besteengadiko alienapenetik irtetzen nahi dutelarik supraherririk beste guztiak morroitzat erabiltzea nahi dute. USAn aukera

Reaganen asmo bakarra USAren aurpegia garbitzea da eta xaboi bezala armak erabiltzea nahi du.

de eta sortaldeko blokeetatik urruntzea da neutraltasun bat aipatuz. Era honetaz, heuren ustez, ez zaio ezin blokeri laguntzarik ematen baizik eta munduko bakeari lagundu.

Nova Delhiko batzarrera zazpi puntutako agiri bat azaldu zen USA eta URSStarrek daramaten mundu-politika zeharo kritikatu. Agiri honetan herriok heuren etxeetatik kanpo za-

Errusiarren Poloniaz eta Afganistanez izan duten jarrera nahiko mespreziagarria izan da.

baltzen zituzten militar baseak eztabaidatzen zuten. Bitartean, ezagutzen ari garen "guda hotz" hori sakonki gaitzesten zuten.

Gaur egun kili-kolo bizi den Elkarte hau 1961. urtean jaio zen 25 naziok Belgradon ospatu zuten bileraren ondoren, baina aurretik asmoak jarrita zeuden Indiako Nerhu, Egiptoko Nasser eta Yugoslaviako Titok emanak.

Geroz eta herri gehiago batu dira Alineatubako Herrien Elkartera: 1964. ean 47 baitziren eta 1979. ean 95era heltzen zirelako. Baina jendea geroz eta gehiago izan baldin bada batasuna finkatzeko arazoa geroago eta handiago egin zaie.

Hasierako bilerak, lehenengo biak hain zuzen, Afrikako deskolonizazioaz eta Palestinaren arazoaz izan ziren, hirugarrena Vietnameri eskeintzen zitzaion bitartean. Hasiera honetan eztabaidak batasuna arriskuan jartzen ez bazuen ere ondorengoetan arriskua hazten joan da USA eta URSSek kideen artean sartu duten hirakagatik alde batetik, eta bestetik, lagun batzu izan duten benetako alineamenduagatik.

berri den Reagan lehendakariak diru gehiago eskatu duen gauza bakarerrako armamenturako izan da, aurtengorako 1.300 dolar miloi gehiago izango ditu kauboiak bere jostailuak hobekitzeko. Reaganen asmo bakarra, bestetik, USAren arpegia garbitzea da, eta xaboi bezala armak erabiltzea nahi du, nahiz eta hortarako USA barneko klaserik txiroenak geroz eta txiroago gelditu behar izan. Etxea konpontzea baino nahigo du azala garbitzea USA filme bat bailitzan.

Baina hau guztiau gutxi balitz ere, Reaganek asma eta hobetutako armak "komunismoaren" aurka gudukatzea nahi duen edozeinarentzako dira. Pistolak banatzeko argudio bakarra "komunistak" mespreziatzea baino ez da.





Bakearako
asmakizuna.

Beste ordenu sozial baten beharrea gaude, ez bakarrik nazioarteko hartuemanetan, baizik eta herri bakoitzaren barruan; nazioarteko panorama herrion ispilu bat delako kasurik gehienetan.



Supraherriok mundu osoaren jabe, ote?

Orain arte SALT akordio honek ez du fruntzirik zehatzik eman, bai batak eta bai besteak batak aitzakiren bat aurtitzen dutelako arerioaren akordioaren izpiritua aurka doana eta horren ondorioetan oinarriturik ez dute gelditzen heuren armak hobekitze hori.

Dena den, oraintsu hasi dira berriro beste akordio mota bat prestatzen SALT horien ondorioz haien betebeharrak betetzen ez zituelako. Oraingoz lehen pausua kosakoek eman duten eztabaidetarako dei eginez.

Reaganek errusoen deia entzun ondoren aurrebaldintza (aurrebaldintza) batzuk jartzea iradokitzen zuten mahai berberan eseritzeko (Noski, erabakirik gabe) soekin batera eta heuren gonbidatuta jarritako gogor non geldituko ote zen amerikarrek ospea eman. Horrexegatik, nahiz eta munduko bakea aurrera eramateko kuan jarri, bururatu zituzten aurrebaldintza berriak, eskabide mailan, errusoei parera egotzeko.

Kosakoen erantzuna argia izango zen: ez dute aurrebaldintza horiek kentzen aurrebaldintza baldin badira. Hortxe dago kakoa. Nor jartzen aurretik? Halan eta guztiz ere badira, erabakiera laister emango dela ez zuten konturatu. Zuzenki iraultzak bere jabegoan ematen ari diren amerikarrei Nikaragua eta El Salvadorrekin iraultzak. Beste alde batetik hortxe dago Txinaren jaiotze berria hirugarren supraherri baten iraultza, zein helburu duen argi inork ez dakielako. Dena den, bada, SALT II. a ezagutuko dugun bileran hori oso probetxagarria baldin bada baina yankientzat eta bai kosakoentzat galderekin hauxe litzateke: Beste herriok zer lortuko dute alkarrizketetatik?

EUROPAKO HERRIAK ZALANTZATAN

Hau guztiau honela dagoelarik ekialdeko europarrek ez dute guztiz sinesten OTANen heuren interesen gordetzailerik izango denik.

Alemaniarrek eman dute lehen pausuak nuklear lehergailuen pilaketaren aurka. Apirilaren 11an eginiko manifestaldiak oso gogorak izan ziren. Manifestaldi honetan era guztietatik jendea batu omen zen: bai ekologistak, komunistak, teologoak, maoistak eta punks-ak ere.

Euskal Herrian barne aski ezagunak ditugu OTANaren aurka eginiko ekintzak eta amerikarren agertzea, batez ere Bardeetan, gogor kritikatu izan da.

Argi dagoena, morroitzat zauzkana zure lehen zuzentzeko beste ordenu sozial baten beharrea gaude, ez bakarrik nazioarteko harremanetan, baizik eta herri bakoitzaren barruan; nazioarteko panorama herrion ispilu bat delako kasurik gehienetan.

Denbora txarrak daude Katalunia-n politikari dagokionez. Jendea defraudaturik omen dago autonomiak ekarri dion botereaz. Gainera istilu batzu izan dira hizkuntza politika dela eta. Katalanik gehienek elebitasun hori fartsa hutsa dela uste duten bitartean, gaztelaniera beraien hizkuntzat dutenak baztertuta ikusten dute haien noratasuna. Hala, lehenbizi "2.300 intelektualen gutuna" argitaratu bazuten, geroago beste agiribat, askoz gogorragoa, kaleratua izan zen: "Kataluniako espainiarren manifestua". "Diskriminazio" hori salatuta gero halako esaez bukatzen zen manifestua: "*Herri bakar baten alde: espainiarra*" "*Nazio bakar baten alde: Espainia*".

Horri ihardukiteko "Comisión para la defensa de la cultura, la lengua y la nación catalanas"-ek "Som una nació" izeneko manifestazio antolatu dute. Guk, horren mamia ezagutu nahirik, Sant Jordi eguna aprobetxatuz, Xirinacs-ekin mintzatzea opatzen dugu eta independentistengana joan gara nola kontaktatu behar dugun jakiteko eta, bidez batez, Kataluniako gertarak argitzen lagunduko digun informazioaren bila...

KATALAN INDEPENDENTISTEKIN HIZKETAN


Goizeko hamarrak dira eta Las Ramblas jendez betez doaz apurka apurka. Ezker eta eskubitan kioskoak, ohizko lore-saltzaileak eta liburuak erakusteko mahaiak, liburu eguna baita. XARXA izenekora jo eta haiekin egin dut berba mementu batzutan. Aldizkari batzu erosirik, eta euskalduna naize-

naiz eta amaitzeko "Comitès de Solidaritat amb els Patriotes Catalans"-enera noa. Propaganda banatzen ari dira. Hurbiltzen naiz eta hango batek Eva Sierra-ri egiten dio hots nigaz mintza dadin. Emakume hau oso ezaguna da Kataluniako sektore independistetan.

A.- "Eta gaurko manifestazioaz?"

E.S.- "Zein? Ba daude bi, nik dakidanez. Bata "Som una nació" izenekoa; bestea Placa Nova-n egiteko dena. Honetara joateko deitu dugu herria, Katalunia-k jasotzen duen errepresioa salatzeke eta amnistia eskatzeko.

per la revolució socialista d'alliberament nacional



Muñita



ABRIL 1981 Núm. 87 preu 25 ptes. - 2 francs INDEPENDENTISTES DELS PAÏSOS CATALANS Apartat de Correus 35226 Barcelona

Catalans! Defensem la nostra Llengua!

la jakin dutenean beste batzu erregalatu dizkirate. Xirinacs-ez itauntzean, BEAN (Bloc d'Esquerres d'Alliberament Nacional) partiduaren mahaira bidali naute, han xehtasun gehiago eman ditzakete eta.

"Ez joan gorago dauden besteengana. Hoiak punttako ezkeriak dira eta, beno, ez dago ultrakeria beharrik..." aholkatu didate azkenean.

Baina nik "punttakoekin" mintzatzea erabaki dut eta BEAN-ekoek senadorehiaren telefonoa eman ondoren, IPC-ek eta "Comitès de Solidaritat amb els Patriotes Catalans"-ek dituzten mahaietara jo naiz, Kataluniako egoera adieraz diezadaten.

IPC (Independentistes dels Països Catalans) partiduko gaztearengana hurbildu naiz. Hasieran mesfidantza pixkat izanagatik ere, zabaldu egin zen berbetan ihardutean:

A.- "Zuek zer uste duzue "Som una nació" manifestazioaz?"

E.S.- Guk argi ikusten dugu hori folklorismo hutsa dena. Gaur egunean Katalunian errepresio handia dagoela, halako ekintzak antolatzea... Manifestazio horren helburu nagusia Generalitat indartzeko da, kritika asko hartzen ari den mementuon. Gu ez gara azalduko handik, noski."

A.- Xirinacs-en bila nabilela jakitean diost:

E.S.- Xirinacs asko aldatu da Madrilgo senadoan egon zenez geroztik. Orain erreta dago. *Pseudo-independentista bat da. Autonomista kritikoa.* Bere partidua BEAN da eta parlamentarismoaren alde dago.

IPC partiduaren mahaitik aldetzen

A.- "Eva, zein giro aurkitzen duzu gaur, Sant Jordi egunean, igazkoarekin konparatzen?"

E.S.- "Desenkantu orokorra dugu Katalunian. Beitu: Leihoetan ez dago igaz beste senerarik..."



A.- "Zenbat preso daukazue?"

E.S.- "Hogeiren bat. Ba dirudi neurri gogoragoak egingo dituztela presoek aplikatzeko. Bultó eta Viola kasuetan inplikaturako omen zeuden batzuri berrikusiko zaie sententzia. Librerik egon arren, 12 urte eskatu dituzte haientzat".

A.- "Intelektualen gutuna" dela eta, zein da zure eritzia?"

E.S.- "Intelektual hoiak institutoetan literatura española ematen duten irakasleak dira. Haien atzetik Rodríguez Sagagún-en lehen-gusua omen dabil. Gutun hori katalanen kontrakoa da eta Martin Villa-ri bi aldiz erakutsi diote. Gero, eta horrekin oso loturik dagoena, ba dago Tarradellas-en ustea. Dirudienez, PSOE-k bultzatu du halakoak esaten. Modu horretaz Pujol larri egongo litzateke eta "Convergencia"-k PSOE-ekin gobernatu beharko luke. Ikusten duzenez, hemen ez da ezer aldatu, ez politikaz, ez eta kultur egoeraz.

Aldendu egin naiz eta Plaça de Catalunya-raino igoten. Nire ondoan pasatzen den jende asko "Som una nació" edo "Tots amb la Generalitat" izentzat dituzten eranskailuak daramatza. Herri honetaz aspaldian dut ikasia haren hizkuntza eta kultur burrukarekiko ahaleginak. Liburudendara hurreraturik, katalanez idatzirik liburuak ikusten ditut: Makina bar elaberri, olerkiak, zientzi liburuak... eta itzulpenei begiratzekoan harridura haundiak jotzen nau: Molière-rengandik Joice-ren "Ulises"-eraino, hiztegi asko eta "Grup del Llibre", "Disco Libro" antzekoa baina katalanez...

Santurtzi

55 MINUTU

LLUIS MARIA XIRINACSekin

Ez nuen Katanunia-tik alde egin Lluís Maria Xirinacs-ekin berba egin gabe. Oso gizon ezaguna bere bizitzan zehar eraman ten duen burrukagatik ba dirudi azken denboretan ezkutatu xamarrik dagoela politika aldetik.

Zenbait bider hots eginda gero berarekin mintzatu ahal izan naiz Bilbora itzultzeko nintzen une berberean. Tokia: Bartzelonia-ko Sants geltokia. Ordua: Arratsaldeko zazpi t'erdietan. Hango kafetegian izan genuen elkarrizketa.

ANAITASUNAK.- "Beno, hasteko, autobiografia gisako sarreratxoa egin zenezan eskatuko nizuke euskal irakurleagoak zure bizitza ezagutzeko..."

XIRINACSek.- "Ni Bartzeloa jaio nintzen orain berrogeita zortzi urte. Eskolapioetan sartu eta hantxe apeztu nintzen. Apeza banaiz ere oso guttietan ematen

duet meza. Burgos-ko prozesuaren garaian gose greban egon nintzen Euskal Herriarekiko elkartasuna eskatuz. Horren fruitua Kataluniako asanblada izan zen eta prozesatu egin ninduten, espetxean urte bi emanez. Denbora tarte horretan beste gose greba batzu ere egin nituen amnistia eske. Greba batek berrogeita bi egun iraun zituen. Gartzelatik at, eta bi urtetan, Bartzelonako Modelo presondegiaren aurrera joaten nintzen egunero. Amnistiaren aldeko burruka modua izan zen hori. Idazlanari dagokionez liburu zenbait idatzi dut baita argitaratzen eman ere..."

A.- "Nola hasi zen zure militantzia politikoa: arazo nazionaletik sozialetaraino ala aldrebes?"

X.- "Kontu erlijiosoak izan ziren arazo nazional eta sozialetaraino gidatu nindutenak.

A.- "Zergatik presentatu zinen hauteskundeetara?"

X.- "Bultzatu egin nindutelako. Ni katalanista guztiak bilduko zituen koalizio unitarioaren alde nengoen denon artean Katalaniala altxatzeko baina ezin izan zen hori eror duan neu presentatu nintzen independentiente moduan. Sinadura asko bildu nuen aurkezpen hori egitea lortzeko eta ekaitzeren 15ean egindako hauteskundeetan mailoi erdi boto eskuratu nituen soil-soiloki Bartzelona probintzian. Ba da nahikoa gero!"

A.- "Zein pauso eman zenuen hortzerantz geroztik?"

X.- "Ba, aukeratua izanda gero "Entesa dels Catalans" talde politikoa sartu nintzen baina geroago boto ninduten konstituzioaz egin nituen enmiendengatik. Talde horren barruan "Convergencia" koalizioa PSOEkoak, eta komunistak zeuden. Enmiendak egiteko jende arruntari eskatu nitzion eritziak bai postaz bai prentsean adierazteko. Inkesta hoiak egin orduan 134 enmienda edo aurkeztu nituen sentsu eman. Herriaz oker nengoela esan zidaten UCD-k orduan!!!".

A.- "Senadoan egin zenituen esku sartzek txit entzunak ditugu, baina ere amnistia eskatzen zutenak eta konstituzioaren kontrakoak ere bai. Zein zentzu izan zuen zuretzat Madrildgo senadoan egoteak?"

X.- "Neure burua zeharo bazterturik ikusten nuen. Salbuespen bakarra Elan dria izan nuen baina haren planteiamenduak nireak baino eskuinetarago zihartzeko kontserbadorragoa baitzen. Beste guztiak ez zeuden oposizioan kontsentsuan baino. Kontsentsua Suárez-i baimena ematea zen nahi zuen guztia egin zezan".

"NIRE BURUA DESPRESTIGIATZEKO KANPAKIA ASKO ANTOLATU ZUTEN ETA LORTU EGIN..."


X.- Egia esan, UCDkoak ez ziren nirekin hain txarto portatu. Enmienda guztiak analizatu zituzten, baita asko eztabaia ere.

Anekdotak? Makina bat dago. Jakin badakizu ni senadoan zutik egoten nintzena Gobernuak amnistia ez ematearren. Orduan, ekintza horretako lehenengo egunetan euskal senadore guztiak zutitu egin ziren nigaz batera PNVkoak ere bai. Ekintza horretan katalan bakar bat egotzen, Girona-ko Ferrer independentista. "Entesa dels Catalans" taldean zebilen Ferrer.

Beste anekdota bat: Behin A.B.E. (Afrrikar Batasunarentzako Erakundea) Tripolitari nongoen bilduta eta Canarias iriak ezko-



Kataluniarekiko traizioa erizten diot Suarezren erreformismoa onartzeari.



d'Alliberament Nacional delakoaren jende multzo bat dago. PSAN hau puska bitan banatu zen aurreko kanpaina elektoralean: Bata, ortodoxoa, punttakoena; bestea, moderadoa, "Nacionalistes d'esquerra"-n daudenena. Oraindik ere bizi dira "Assemblea de Catalunya" izan zeneren taldetxoak. Gero BEAN (Bloc d'Esquerres d'Alliberament Nacional) dugu. Ba dago ere "El Front Nacional Catalá". Horren atzean Nacionalistes d'Esquerra taldea izango litzateke. Alderdi ha ezker independentista banatzeko delakotan nago. Haren barruan PSUC-ko pertsonak daude, guk "los submarinos del PSUC" deitzen duguna. Bukatzeko, Esquerra Republicana ageri zaigu. Ez dira independentistak, katalanistak izan arren. Beraien "Republica" hori Espainiakoa da. Talde politiko hau asko aldatu da Macia-k eta Compays-ek sortu zuten zuzenez geroztik. Hasiaren independentistak ziren baina geroago bere planteiamenduak atzera jo zituen Maciak...

Nik neuk BEANen iharduten dut baina nire ideiak eta IPCek eta PSAN ortodoxoak dituztenak berberak dira. BEAN alderdiaren barruan ere ba daude punttako politikariak eta moderadoagoak ere bai. *Gu ez gara IPC eta PSAN ortodoxoa bezain gogorak. Haiek ez dute hauteskundeetara joan nahi, sistemaren jukututriari jarraitzea baita, haien ustez. HB koalizioaren antzekoak direla diote baina ez daukate Euskal Alderdi honen indar handia. Ni PSAN "ortodoxo"-arekin eta IPCekin bat nator, haiengandik kritika asko hartu dudana arren.*

"POLITIKARI KATALANEK FAXISMORA ITZULTEA PIZTU DUTE AIEN AHULEZIAGATIK. KATALUNIAREKIKO TRAZIOA ERIZTEN DIOT SUAREZEN ERRE-FORMISMOA ONARTZEARI".

A.- Ez omen zenuen laguntza handirik izan kanpoan nahiz Katalunian Zer deritzozu horri?"

X.- "Bai. Alderdi nagusiak ni desprestigiatzen ari izan dira kanpaina askoren bidez. Hala, lukainka batzu esan dira, herriak zorotzat jo nazan: Tarradellas ikustera TXANGOLARI joan omen nintzen..."

Ni senadoan mintzatzen nintzen bitartean *Camilo José Celak uzkerria bota omen zuen... Hau gezur hutsa da eta jakin nahi baduzue galdetu Celari berari.* Bestalde batetik, jendea berbetan hasten da nirekin kalean ikusten nautenean. Herritarrekin harreman estuak ditut, baina goikoek egiten didatena!. Senadoan izan nintzenean Bartzelonako egunkari bik eman zidaten lana. Horrela, zutabe bana hartu zuten

nizatu behar zirela esan zuten afrikarrek. Hori zela eta senadoan A.B.E.-ren kontrako proposamendua eman zen botatzera, ezer ere ez eztabaidatu gabe. Denek esan zioten baietz proposamendu horri valentziarrak eta biok salbu. Senadotik irtetean RNE-ko kazetariak itaundu zidan nire aburur horren zioa, zergatik uste nuen Canarias kolonizatuta dagoela. Nik Canarias, Andaluzia eta Castilla bezala, benebenetan kolonizaturik zegoela hango aberastasunak hartzen baitzizuten; berak, ezetz; baina azkenean utzi genion eztabaidatzeari. Biharamunean YA-ko kazetariak esan zuen Canarias-ko egoera arakatzeko zegoen agiri bakarra nire deklarazioena zela. Cubillos, M.P.A.I.A.C.-koa, Tripolin zebilen eta nik esanikoa grabatu zuen, irratiz entzun zuen eta. Gero gonbidatu ninduen berarekin Argelia-ra joateko..."

A.- Zergatik ez zintuzten hautatu hurrengo komizioetan?"

X.- *Alderdi guztiak ni hondatzeko batu zirelako, senadoan gerra handia eman bainien. Nire burua desprestigiatzeko kanpaina asko antolatu zuten, eta botere-suek komunikabideak dituztenez gero, lortu egin zuten".*

A.- "Nola ikusten duzu Kataluniako egoera aukerabide independentistakotako banaketa dela eta?"

X.- "Fatal!. Banaketa handia da gurea. Ezkerratik eskubitara gutti gora behera hauexek ditugu: IPC (Independentistas dels Països Catalans). Hauek ortodoxoenak dira eta "Comités de Solidaritat amb els Patriotes Catalans" -ekin ibiltzen dira, han gehiengo izanez. Komite hauek zuten Amnistiaren aldeko Batzordeak edo ematen dituzte. Hoietan Partit Socialista

egunero urte batetan baina gero ez zidaten idazteari jarraitzen utzi, gauza asko salatzen bainuen artikuluetan. Egunkari hоек AVUI eta MUNDO DIARIO izan ziren.

Aspaldi honetan nire hitzaldiak jakin erazteko publizitatea ez da hemengo egunkarietan agertzen, nahiz eta AVUIri berari bidali iragarkia.

Nire liburuak ez ditu inork argitaratzen... *Nire ixiltasuna lortu nahi dute diruz! Zuekin, euskaldunokin, egiten ditut el-karrikuste gehienak.*

A.- Nola ikusten duzu Kataluniako bilakaera autonomikoa?

X.- Nik beti esaten dut Katalunian oso politika ttiki ona eta oso politika handi txarra egiten dela. Euskaldun batentzat arraro xamar dateke eritzi hau. Adieraziko dizut: *Gu politika nagusian ez gara Madrili aurka egiten genezakeela baina ez dakigu egiten. Gure burruka gauza txikietan datza eta hau ez du Madrilek ulertzen. Berton edozein gauza da burruka sinboloa: koronetan, auzoetan, elkarteetan, beti egoten da senyeraren bat. Pujol-ek Espainiako bandera kendu du bere bulegotik. Hala hemengo presidentea dela dirudi, atzean bakarrik senyera (Kataluniako bandera) duelarik. Gure kulturak gero eta gorago jotzen du, beti mintzatzen gara katalanaz,*



makina bat liburu argitaratzen dugu, auzo guztietan oso lan handiez ari gara txit gauza zaila izango litzateke Katalunia hondatzen.

Gure herrian autogestio asko dago Euskal Herrian bezalaxe. **Banca Catalana** ere ba dugu eta honek bakarrik Katalunian inbertitzen du eta hori oso positiboa da, sistema kapitalistaren barruan da baina. Bo-

tere ekonomikoa ez bagenu izan hirugarren graduko autonomiaz loturik egongo ginatekeen, Galizia dagoen moduan. *Txit inportantea dugu faktore ekonomikoa. Bestela, begira okzitania eta britainiaren egoera... Politikari Katalanek faxismora itzultzea piztu dute haien ahul-ziagatik. Kataluniarekiko traizioa eriztediot suarezen erreformismoa onartzeari.*

AIUZMENDI



SASTRE-VERGARA I.
DONOSTIARAKO ESTILOA.

**"INDEPENDENTZIA INIZIATIBA
HISTORIKOAK HARTUZ
EZKURATZEN DA, EZ BAKARRIK
MUGAK ESKATUZ. MUGAK,
ETORTZEKOAK BALDIN BADIRA,
BERAIEN KABUZ IRITSIKO
ZAIKIGU"**

A.- "Herri katalanak independenteak izango direla sinesten duzu?"

X.- "Ez dakit sinesten dudanentz baina biziki nahi dut. IPC-ek eta PSAN ortodoxoak independentzia eskatzen dute abstraktoki. Nik zera diotsut: *independentzia atera egiten da arlo guztietaz burrutatuz. Independentzia ekonomikoa, energetikoa, kulturala, politikoa behar ditugu. Gaurko egunean bilatu behar duguna ez da bakarrik Madrilgo botereaz, Washington eta Europakoaz baino. Independentzia inizatiba historikoak hartuz eskuratzen da, ez soilik muga artifizialak eskatuz. Mugak etortzekoak baldin badira beraien kabuz iritsiko zaizkigu.*

A.- "Zer uste duzu intelektual gaztelauen gutunaz? Zer proposatuko zenuke Kataluniako hizkuntz egoera aldatzeko?"

X.- "Beno, lehenengo galderari erantzunez, esan behar dut gutun hori gure herriaz jabetu direnena dela. Bigarrenaz, zera: Kataluniako problematika linguistikoa gainditzeko monolinguisimo katalana ipiniko nuke arlo guztietan. *Hizkuntza ofizial bakarra, Katalana. Aurretiaz 5-10 urteko adaptazio-fasea izango litzateke. Nik emigranteen kultura errespetatzen dut baina Kataluniak ere berea badauka...*"

A.- "Ba al dago inor deklarazio hoiengatik, lerroxismoaren garaietara bihurtzea opa izango duenik?"

X.- "Bai, noski. Komunitate bitan sakanabana gaitezen nahi dute".

**"POLITIKARI KATALANAK
OPORTUNISTA HUTSAK IZAN DIRA.
SUAREZ-EK FRANCO-K LORTU EZ
ZUENA EGIN DU: DIRU ASKOZ ETA
KONPETENTZIA GUTTIZ EROSI
DITU"**

A.- "Zer dioskuzu Diada de Sant Jordi ospatzeko egin den "Som una nació" delako manifestazioaz?"

X.- "Funtsean ongi. Mementua, bakarrik irainaz garbitzeko mobilizatzen denaren ahuleziaren tipikoa izan dela esan genezake. *Manifestazio hau zuzendu dutenak betiko marrazo aprobetxategiak garrantiarik gabekoak*".

A.- "Eta Tarradellas-ek Generalitat-i egindako kritikez?"

X.- "Gizon horretaz jakin behar duzue Armada jeneralak zuzenduko zukeen gobernuaz ados zegoela. PSOE eta Raventós ere bai. Kontutan hartu behar dugu Madril joatean zer esan zuen Tarradellas-ek: "Aquí hace falta un golpe de timón".

A.- "Egia da Katalunian frustrazio handia dagoela arazo nazionalari buruz?"

X.- "Bai. Desenkatua itzela izan da. *Politikariak irusako egin diote herriari. Politikari Katalanak oportunistak hutsak izan dira. Suarez-ek Franco-k lortu ez zuena egin du: diru askoz eta konpetentzia guttiz erosi ditu*".

A.- "Bakezalea zara? Zer deritzozu Euskal Herriko burruka harmatuari?"

X.- "Galdera hau beti egiten didazue euskal kazetariok. Ni ezbiolento aktiboa naiz. Nik ez dut kondenatzen "la violencia venga de donde venga". Nik biolentzia mota bi nabarmentzen ditut: Bata, biolentzia askatzailea, bestea, biolentzia zapaltzailea. *Gogortzale zapaltzaileen izterbezia naiz eta askatasunaren alde burukatzen duten zapalduen adiskidea naiz, biolentzia erabili arren*".

Ley para la defensa de la Constitución" delakoa aprobatu zutenean "Apologia del terrorismo" deitzen zen artikulua egin nuen. Dena apropos idatzita zegoen espetxera joateko lege horren bildur ez naizelako baina ezein egunkarik ez zuen argitaratu nahi. Andorra-ko berripaperak hasieran nahi izan arren, azkenean atzeratu egin..."

A.- "Zer esango zeniguke amnistiaz?"

X.- "Amnistiaren alde nagoela, baina soilik preso demokratikoentzat. *Nik ez nuke sekulan ere Tejero amnistiaturako inondik inora. Preso sozialez, lehen egin nuen moduan, indulto eskatzen dut haiengatik. Zokoratu sozialen autobirsortzearen jaiki-garria zen COPEL-i eginiko zapalkuntzaz protestatzen dut biziki*".

A.- "Amaitzeko, ezer esateko Euskal Herriari?"

X.- Estatuko errebutsiak zarete euskaldunok. Espainiarekin *berdinetik berdinera negoziatzen duten bakarrik zeuek zarete. Horixe dugu demokrazia modu bakarra*".

Elkarrizketa bukatu egin da. Zortziak eta hogeitabost dira. Hamar minutu barru aldegingo du trenak eta ni oraindino kafe-tegian! Lluís Maria Xirinacs agur egiten diot eta lurpekorantz noa korrika. Bat-batetan norbaitek deitzen nau atzetik. Bera da. Arineketan dator eta kafetegian ahantzi berri dudan jertseia dakarkit. Mila esker Xiri, hurrengora arte!!

Santurtzi

NOR ZER DEN

Gure alboan bizi direnak, jaitzez, Albacetekoak dira. Orain dela gutxi, auto berri bat erosi dute: orain arte zeukatenak hemengo matrikula zuen (Bizkaikoa, ez Bilbokoa askok esaten duten moduan) eta berriak aldiz Albacetekoa. Gure lantegiko santandear batek ere, erosi duen auto berriari bere jaiterriko matrikula ipini dio. Beste batzuk aldiz, ez dute auto berriak erosi, baina daukatena pegatinaz bete dute, nongoak diren ondo adieraziz. Hau irakurtzen zauden horrek ere, seguru asko, horrelako beste hainbat adibide ezagutuko dituzu. Zer dela eta lehen Bi- edo SS- zutenak orain AB- edo S- matrikuletara pasatu, eta, lehen autoa garbi-garbi zutenek eta pegatzen aurka agertu izan zirenek orain *Cantabria, Rioja, Andalucía, Extremadura* eta abarrez bete? Zer dela eta aldaketa hau? Estatuan deitzen duten "el despertar de las autonomías" horren ondorioa ote?

Nik ez dut esango kasu konkretu batzutan ez denik holakorik gertatuko, baina, gehienetan, aldaketa horren kausa beldurra da, euskalduntzat hartuko dituztenaren beldurra. Eta uste dut hau argi dagoela.

Jende hau, normala den moduan, noiztik behin bere herrira joaten da: batzuk urtean behin oporrak igarotera, beste batzuk sarrirago, asko astero. Heuren herria ondo ezagutzen dute, guk baino hobeto, eta ba dakite euskaldunek zelako harrera espero dezaketen heuren herri horietan, eta euskalduntzat ez hartzeko eta autoari barrabaskeria bat ez egiteko hartu dute matrikula eta pegatzen neurri hori: **heuren herritarren beldur dira.**

Jende hau, normala den moduan, Euskal Herria itzultzen da, lan eta bizitza egitera eta hemen pasatzen dute urtearen partetik handiena, eta urtean zehar autoa erabili egiten dute, heuren matrikula, pegatina eta guzti: ez dut uste garagean izkutatuta uzten duen inor dagoenik. Harro-harro dabilta Euskal Herria zehar, izan behar den moduan. *Ez dira euskaldunen beldur.*

Konstatazio honek ez luke inportantziarik eduki behar, gaurregun entzuten den hizkeragatik izango ez balitz.

Hemen bizi diren inmigratu horiek heuren herritarren beldur dira, ez euskaldunen beldur, argi dagoen moduan, baina hala eta guztiz ere, heurteriko askoren ahoetan, beldurra sarrerazten dutenak, terroristak, euskaldunok gara, terminologian behintzat. Ba dakigu terminologia hau informazio-medioetatik ikasia dela, eta horren aurka burrutatzea zaila dela, baina koherentzia minimo bat eskatzeko eskubidea ere ba dugula, uste dut, zeren haien herritarrek bezain razistak, terroristak eta faszistak izango bagina, nekez aldatuko lituzkete matrikulak, eta pegatinak erosteko gogoia ez dakit non edukiko luketen.

Eddy

Maiatzan zehar, Italian hain bereziki, partiduek abortoari buruzko mitinak eta hitzaldiak zabalduko dituzte, egiteko dauden erreferendumentan, orain arte onartua izan den legea, ukatua izan ez dadin.

Mundu teknifikatu honetan, pertsonak probetetan edo umontzian artifizialki egiten diren (edo egin daitezkeen) honetan, abortatzeko eta bizitzari amaiera errezago zeinbigu nago bat ematea eskatzen da. Abortoaz eta eutanasiar ari gatzaizkizue.

Gure ondorengo lan honetan heurteriko batetaz arduratuko gara, abortoz hain zuzen. Alde batetik Italiarrek daukaten legea noraikoa den ikusteko, eta, bestetik, abortoaren aurrean gaur egun ditugun asmorik zabalena zeintzuk diren ezagutzeko.

Hala ere aurretik zera esan behar dugu: abortoa ez dela ezinbesteko gauza bat; hau da, arazo zehatz batzuk zuzentzeko egin daitekeen zerbait dela edo/ta beste bide batzuen ezean egin daitekeen zerbait. Baina ezin kontsidera dezakegu abortoa gure egunotako ogizat, noski.

ABORTOAREN INGURUAN HAINBAT HABURU



ANAITASUNAREN ale hau gure irakurleen eskuetara heldu orduko Italian gogor ekingo diote alderdirik gehienek abortoaren kanpainari, batzuk alde eta beste batzuk kontra. Aipatu Italia honetan erreferendun bi gertatu dira 1978. urtean abortoa legeztatatzeko zabaldu zen legea berrikusteko eta bere orainarteko ekintza nolakoa izan den ikusteko.

Abortoa dela eta asko egin da gure aldizkari honetan eta kasu honetan berriro bihurtzen baldin baditugu gure begiak helburu berdinean hontarantz ez da gaiak, berak, horrela eskatzen digulako baizik.

Eskutartean duzun lan honek hiru zati nagusi izango ditu, zuk zeuk ikus dezakezunez. Lehenengo eta behin Italiako kasua ikusiko dugu hurbiletik, legea noraikoa den ikusiz alderdi politiko ezberdinen teoriak nolakoak diren ikusteko. Baina helburua urrinago doalarik Europan zehar dauden beste legislazio



batzuk ere aipatuko dizkizuegu eta gure herri mailan ditugun alderdi batzuen asmoak zabalduko ditugu azken batetan.

1- Italiako Oihartzuna.

Hauzitan jartzen den lege honek 1978. urtean ikusi zuen argia lehenbizikoz. Gaur egun bai kristauak eta bai erradikalak ditugu Italian lege honen aurka, lehenak gizakiaren nortasunaren aurka doalako eta bigarrenak, erradika-

Italian aborto legearen berrikusketa Maiatzaren inguruan, kristauak eta erradikalak legearen aurka egonda (motibo ezberdinez) beste laiko diren alderdi guztiak alde agertzen dute burua.

Baina goazen arira. Gestazioa apurtzeko neskak hurrengo baldintzotariko



rearen baimena eskatzen dela. Hala eta guztiz ere, osagileak amaren bizitza arrisku gorrian ikusten baldin badu idazki baten bidez aipatuko die abortorearen beharrizan larria bai bere tutoreari eta bai zerbitzu kirurjikoekoei.

Beste alde batetik kontzientzia objektiboa duten klinika langileek ez dute zertan lagundu behar aborto kasu bat agertzen zaienean.

Azkenez legetik at abortatzen duten emakumeentzat zigor zerrenda bat dakar lege honek. Legetik at abortatzea hauxe litzateke laburki: Emandako 90 egunotako epetik irtetzea. Mediku edo sanitate instituzioetatik kanpo egitea aborto hori eta abortoa betetzea tutorearen baimenik ez duen adingabekoa neska batek.

Legea honelaxe dabilelarik bi erreferendum ezberdinak asmatzen dira abortorearen lege honen aurka. Alde batetik Bizitzaren Aldeko Mugimenduak azaltzen duena eta bestetik Erradikalek presentatzen dutena. Lehenari baietza ematea gaurko legea kentzea, oso aurrerakoa delako litzateke eta bigarrenari baietza emanez gero legea kendu egingo zen baina oso atzerakoa, zelako eta beste aurrerakoiago litzatekeen beste batez aldatuko. Galdaketa bi hauek Maiatzaren 14tik Ekainaren 14ra bitartean ospatuko dira, orain, Maiatzan zehar alderdi politiko bakoitzak bere propaganda egiten ari dela.

Erreferendum hauetan gehien sartuko diren alderdiak Kristau Demokrazia (D.C.), Alderdi Komunista (P.C.I.) eta Erradikal Alderdia (P.R.) ditugu, nahiz

1979. urtean 190.000 legezko aborto egin dira Italian, klandestinitatean egiten zirenen bikoitza gutxi gora behera.


lak, oso lege atzerakoitzat hartzen dutelako. Dena dela, ikus ditzagun lege honen zehaztasun batzuk.

“Estatuak, nahiz eta gogoz egiten den sorketa zaintzen du abortorearen lege hau zabalduarren “honelakoxe hau irakurtzen dugu aipaturiko lege horren lehen artikuluan. Artikulu berean ere abortorearen lege hau jaiotze kontrolerako egiten den zerbait ez dela aitortzen zaigu.

bat aurkeztu behar du bere abortoa egin nahi duenean: a) erdibitzea guztiz kaltegarria susmatzen delako, b) bere egoera fisiko zein sikikorako gaiztoa agertzen delako eta haurrak bere osasunari kalte handiak egin ditzazkielako, d) formazio okerrak itxaroten direlako eta e) bere ekonomia edo/ta sozio eta familiar egoerak arriskuan jartzen dituelako jaiotzera ziohan ume berri horrek.

Abortoa legepean egiteko beste baldintza batzuk zaindu behar dira, hots, epe konkretu batena, 90 egunetakoa hain zuzen. Abortoa lehenengo larogeita hamar egunotan barne geldituz gero zilegia litzateke erdibitze okerra susmatzen denean eta malformazioak espero direnean.

Orain arte aipaturiko puntu guzti hauek adin nagusitasuna lortua dute-entzat eginak dira, 18 urte beharagoentzat beste betekizun hau dago: tutore



Abortoak alternatiba egoki bat behar du gaur egun.

eta beste guztiak ere barku berronen partaideak izan (bai faxistak, demokristauak eta alderdi sozialista).

Bruno Osini, D.C.ko partaide, honela mintzatu zen joandako Apirilaren abortorenen legeaz: "Ez da kruzada bat, baizik eta mesfidantza bat". D.C. koek Bizitzaren Aldeko Mugimenduan sartuta dauden kristau tradizionalisten zaintzaleak ditugu legearen aurka jotzeko honetan: Demokraton ustez abortoa sanitate publikotik atera behar da abortoa egitea azken batez erahilketa bat besterik ez delako, lehen larogeita hamar egunetan egin arren. Bruno Osini ustez abortoa klandestinitatek ateratzea legezkatzea da. (Abortoa desklandestinitatez baikorra daiteke horrela amaren bizitza gordeko delako segur aski, nahiz eta umearena galdu).

P.C.I.ko partaide den Andela Bittari ez dago batere ados aurrean aipaturiko Brunorekin. Azaltzen diren erreferendun bietan komunistek ezetza eman go dute orainarte ezagutzen den legea alda ez dezaten. Ezetza, orduan, bai kristauen eritziei eta ezetza ere bai erradikalen eskabideei. "Ezin diogudioteste-estatu laikoari uko egin abortorenen kontzeptio moralista eta kristauak onartuz".

P.R.ekoa den Adele Facciok "lege bizkor eta errealtatearen errepresentatzaileago bat behar da" la dio. Erradikalen asmoa oraingo legearen atal atzerakoi eta judizial hutsuneren bat dituzten zatiak kentzea litzateke, klandestinitatearen beste baldintza aurrerakoiagoen bitartez betetzeko. Lege berri honek "aborto liberoa", dohaina eta zaindua legezkatu beharko lituzke.

Hauzitan dagoen legea 1978. ean zabaldu zen eta 1979. urtean 190.000 aborto legezko egin ziren; hau da, klandestinitatean egiten ziren baino bi biderrez gehiago gutxi gora behera. Egia esan, lege honek iceberg baten tontorra erakusten digu baina ez du iceberg hori inolaz sortu. Datu hau "Salve" deitzen den aldizkari italiarretik hartu dugu, eta bertan dioenez, Italiako herriak argi du antisorgailuen erabilera ugaritu egin behar dela hainbeste abortu nahi ez baldin bada.

2- Abortoak irtenbideak eskatzen ditu
Gaurko egoera honetan eta gure etxeetarantz bihurtuz, irtenbideak eskatzen ditugu. Alde batetik, ez abortatzerik nahi baldin badugu, aurrebideak (antisorgailuak eta abar) zehaztu behar ditugu. Beste alde batetik, abortora heltzera nahi duenak bide egoki batzuk aurkitu behar ditu eta ez joan

abortatzera hiltokira doan txahala bezala.

Egungo emakumeek zerbait esan dute horrelako arazoan aurrean. Asanbladak, manifestaldiak eta abar eginak dira gure herria abortoa legezkatzeko. Baina arazoa, gure ustez, ez da abortoa helburutzat hartzea, baizik eta, zeintzu bide jarri behar diren abortatzera ez heltzeko.

Senide planifikapen feminista bat eskatzen da une honetan hainbat herri-tan. Jaiotze kontrola eraman nahi dute gaurko emakumeek heuren etxeetan. Baina bitartean gobernuak ez dio deus gai honetaz; hala ere, implizitoki, gartzelatua izaten da abortorenen alde agertzen den emakume eta edonor.

Gaur egun ez dira banatzen antisorgailuak demokratikoki, eta batez ere, behe klaseak dira antisorgailuak lortzea zailen dutenak. Beste alde batetik emakumeek hainbatetan aipaturiko arazo bat estaltzen da antisorgailuak

Abortorik nahi ez baldin bada antisorgailuez inbestigazio zehatzak egin behar dira kaltegarriak izan ez daitezken.

banatzeko unean. Haietariko asko (antisorgailuetariko asko), gehienak ez esatearren, kaltegarriak direlako heuren gorputzentzako abortoa izan daitekeen era berean.

Gauzak honela daudelarik ezin genekazé esan, inolaz, abortoa moral kasu bat denik. Abortorenen aurrean moralak diren kasuekin batera sozialak diren beste batzuk agertzen dira eta biderantzun behar zaie heuratariko ezin estaldu gabe. Arazo moralak irtenbide bat izango du, arazo soziala beste bitartean.

Aipaturiko arazo moralen artean hurrengo honek ditugu entzutenak. Haurraldi arazoetan zein salbatu, ama ala umea? Nola atenta daiteke bizitzaren aurka? Zein litzateke amoralago, abortoa legezkatzea ala ez legezkatzea emakumeak hiltegia eramatea? Haurraldietan gertatzen diren monstruoen aurrean zer egin? Monstru hauek zergaitik ez lirateke gizakia izango?


Arima hirugarren hilabetean heltzen baldin bada; hau da, obulua eta espermaren batasunak umegaia edo fetoa lortzen duenean, zein izango litzateke arazoa arimaren heltze horren aurretik abortatuz gero?

Goiko kasu hauetan erantzunak norberarentzakoak direla uste dugu, norberak norberari aplikatzekoak, baina hain moral ezberdinak ditugun herri honetan gizarte osorako plagintza eta erantzun zabalago batzuk izan beharko ditugu. Maila honetan arazo sozialak planteiatzen dituen galderak ditugu, hala nola:

Zergatik beheko klaseek ez dute klase-



Aborto bat nola egiten den.



Holako Monstruoen aurrean zer egin?

ek bezain erraz antisorgailuak lortzen? Zergatik ez da abortoaz arduratzen Aseguru Soziala? Gaur egun kaltegarriago izan daiteke pildorak hartzea aborto egoki bat egitea baino; noizko, ba, antisorgailuen erabilera egokia? Zer dagokio hobe gizarteari, ongi zaindu eta hezko ez den haurra ala haurraldia ebakitzeko legeak zabaltzea? Abortatzeagatik juzgatuak direnak zergatik ditugu beti dirutan larri-larri daude-nak?

Eskabideak une honetan hemendik legokez: antisorgailuez inbestigazio zehatzak egin kaltegarriak izan ez daitezten eta bide batez, antisorgailu egokien zabalpen eta azalpena herriratu. Euskal Herri mailan, ere, ez legoke gaizki, noizpait abortatu duten emakumeek eta medikuek elkarrekin eginiko abortatzeko lege bat zabaltzea.

3- Europako legeztapena

Europar zehar abortoari buruz dauden legeak ezberdinak dira haien artean, baina dena dela, egokia iruditzen zaigu Estaturik nabarmenetan era-

biltzen duten legea norainokoa den ikustea.

Hasteko has gaitzen Espainiatik. Premisarik garrantzitsuena abortoa zigortua dela dugu. Kasu honetan Espainian ezagutzen den legeztapena egoera ezberdinak nola zigortu behar diren jakiteko baino ez da. ANAITASUNAK argitaratu zuen behin legearen oinarria bere 390. alean. Halan eta guztiz ere hona hemen laburpentxo bat.

Euskal Herriak noizpait abortatu duten emakumeek eta medikuek elkarrekin eginiko lege bat behar du.

Espainiako Kodigo Penalak honela mintzatzen da haurriketa eta abortoz. Gartzela-zigor nagusia ondorengoez hartuko dute: Abortoa emakumearen aimenrik gabe egiten duena. Emakumeak norbaiti eskubide osoa ematen baldin badio abortoa beregain egiteko, aborto kasu baten inplikaturata aurki daitezkeen osagile edo botikarioa. Gart-

zela zigor txikia hurrengoez hartuko: jaio berria den haurra hiltzen duen amak eta bere gurasoez ekintza gordeko balute, nahi izan barik baina biolentoki egiten den abortoarez egileak, abortoa egiten daudelarik ama hiltzen baldin bada, kasua izkutatu duten gurasoez.

Frantzia, egia esan, beste lege bat dute naiz eta lege hori lortzeko hamaikatxo eztabaida egon. Gaur egun Parisek emandako lege hau bideotatik dabil: 18 urte baino gehiago dituzten amek lehen sei astebetetan aborta dezakete. Aborto hau Aseguru Sozialaren kontura egiten da Frantziako bizilagun guztientzat eta mediku guztiek dute abortoa egiteko obligazioa (egiten duten ala ez, hori beste gauza bat da).

Urrengoa alean beste herrietako legeak eta bertoko alderdi politikoen eritziak izango dituzue, orduan beraz, urrengoa alerarte.

J.I. Basterretxea



AGUR ETA OHORE DONOSTIARREI

Egunero ez da horrelakorik ikusten, ez horixe! Ziklismoan esaten denez, esprinean eta foto-finisha aztertu ondoren jakin dugu garailearen izena. Bihotza sendo dugulakoan nago, horren tentsio handia agoantatu dugunez.

Bai! Enteratu ez bazarete (gauza zaila berau), entera zaitezten, azken berria adieraziko dizuet: Errealak irabazi egin du azkenean. Estu baino estuago, baina ongi merezita. Azkenean. Ba zen garaia! Hainbeste palo hartzera ohiturik gauden herri honetan, honelako berri onak ere hartzea komeni zaigu —zer demontre!— animoak altxatzeko. Eta garaile gerta gaitzkeela gogora erazteko.

Apirileko hogei ta seigarrenean Asturias deitutako lurren barrenean Cogor aritu ziren lagunak lanean, irabazle amaituz justu azkenean. Ospa dezagun orain modu onenean

Laurogei eta hamar minutu baditu, guztietan behar da indarrez aritu; baloia hartu eta atzetik segitu. Eskerrak irabazten zuela amaitu Egunero ezin da hainbeste sufritu

Bukatua da baina dirudi ametsa, lhazkoa ikusiz ez ziteken pentsa Etengabe jardunez gaitzela zentza zer esan jakin gabe geratu da prentsa Txapela kenduz esan: Nolako defentsa!

Gorritz ta Olaizolak pasatzen ez laga Zelaietak eskuinez baloia atara Kortabariak gero bere ostikada Deskuiduan baten bat eskapatu bada, trankil gera zaitezte, han da Arkonada

Defentsa ona eta gogorra erdia, Alonsok nekean du bota izerdia Diego indartsu ta jokoan garbia, antolatzen Zamora erabat argia. Ondo harrapatu da aurtengo "erbia"

Idigoras lanean dabil egun ta gau Nafar bat da erdian Satrustegi beran Lopez Ufarterekin egin dute birau, Utzi ez arren ere habila baita hau Aurrelarien lanak osorik poztu nau

Jendea adi zegon irratitik estu, barrutik zioela "suerterik ez du".

Baina irabazi du nahiz ta izan justu Madrilek zeukan dena gozatzeko prestu Azken une latzean diote kaxaztu

Ihazkoan hasirik honetan atzea, erakutsiagatik hasteko batxea. Boronatek jarri du zuloan partxea, entrenatuz lorturik denak sendatzea horren arduraduna da Hormaetxea.

Oriundoak ziren hor zehar nagusi Errealak zegoen etxean itsusi kanterak zer dakarren dezaten ikusi, Madrili esprinean zaio irabazi. Gure txalo beroak dituzte merezi

Lanean aritzea da beharrezkoa, sufritzeko nahikoa baitzen ihazkoa. Orain ezta eta orduan ezkoa. Hurrengo urterako prestatu hauspoa Gora Errealak ta Gora Gipuzkoa

Txepetxa

KRISIA DELA ETA EDOTA OSASUNA ETA ASKATASUNA BATZEKO BIDEAZ

Krisia gogor dabil gure gainean. Zenbat ote gara, diruz zeharo itota gabiltzanak? Lanik ezin egin; edo egin nahi ez. Nola edo hala, diru ezean. Ez zaigu horratik, bizitza merke gertatzen! Eta diru gabe.

Zer egin? Aurrezki-kutxaren bat lapur? Dagoeneko txanda eskatu behar da, edozein sukurtsal lapurtzeko. Diru faltsua egin? Oso zaila eta harriskutsua. Gizon edo emakume dirudunen batetaz "enrollatu"? Nahiko duena, saia dadila hontan.

Beste soluzio bat dakarkizuet: lorkaitza duzuen diru ez gastatzea. Lorpenak: osasuna hobetu, kontsumismotik urrundu, diruaz ez larritu, libre izaten hasi.

Hau denau, nola?, galdetuko duzue jadanik. Pauso bat proposatzen dizuet: bizizalea edo naturista edo, bihur. Zertarako, nola?

Lehenengoz elikadura zuzendu: egunean hirutan besterik ez jan; poliki jan, dena ondo txikituz. Tartekako guztia baztertu. Egutero frutaz gosaldu. Bazkalaretik sagar bat, eta bazkarian bi plater soilik bata entsalada —gauza gordinak edo—, bestea zerbeit egosia —ahal bezainbeste, okela eta arraina baztertu—. Azkenean, afari-merienda gisa —goiz afaldu behar da; oheratu baino zenbait ordu lehenago—, zuek ikusi; adibidetzat zerak balio lezake: barazki-zopa eta gazta, edota beste entsalada edo egositakoren bat eta yogurra, edo kefirra, edo nahi duzuen —erraz suposatzekoa da "nahi" hortan zer ezin sar daitekeen—. Gainera, astean behin baraua eginez gero, are eta hobeto.

Zenbat gauzetan ez ote zareten pentsa-

gorputzaren egoera onena izan beharko luke, eta guztiz alderantziz, ezin dugu horrelakorik jasan: noski, ustelduta gabiltza, eta sabelak lanik ez duenean, autogarbitzen hasten da, eta molestatu egiten digu; beroni deritzaiogu "gosea". Gosea kentzeko, berriz jan, eta garbiketa ad eternum atzeratu. Zuzen bagaude, berriz, horrelakorik ez da gertatuko.

Bigarren puntua; Osasunez ondo ibilirik, eta osasunerako onak diren gauzak janik, atsegin gastronomikoa inork baino handiagoa izan dezakegu (hi, tripazai, kentzak irrifar maltzur hori aurpegitik, eta egik aproba).

Harira noa berriz; ez dut lantxo hau medikuntzaz edo gastronomiaz planteiatu.

Zer lortu dugu? Jan-gastua zeharo txikitu. Gainera, tabernetara ez gara ezertara joango —edan behar ez dela, sobran dago esatea—, eta hor dugu beste kristoren aurrezia. Honen orde, lagunekin enparantzatan bildu, edo mendira igotzen, edota etxeetan edozein gauza egiten. Eurria ari duela? Kafe baten aitzakiz, arratsalde osoz kafetegi batetan eserita egon.

Aurrera goaz: erretze utzi. Hara zer ohitura kaltegarri eta okerra —gaixo ez— erretzaileok—. Hor beste dirutza bat.

Honen guztionen ondorioz, ez gara inoiz mediku edo farmazia baten aurrean agertuko ere. Aurrezkiek aurrera.

Gehiago esango dizuet: gauzak horrela, hozkailurik ez plater ikuztailurik —duenari diotsot— ez duzue beharko; bizitza askoz ere xeheago aizan daiteke. Hortaz gainera telebista behin eta betirako lehiotik behera bota baduzue: pentsa zenbat diru tresnetan eta argita.

Datu bitxi bat: sabel-hesteak garbi dituenak kaka garbi egiten du —ankak gora honetarako; zer ohitura zentzugabea, kaka eserita egitea—, eta komun paperatan ere gutxiago gastatuko du. Garbigailuetan ere asko irabazi dugunez (zigarroen errautsa —hondakin erradioaktiboak, hi— etxeetako zikinkeraren erdia da), ontziak garbitzen eta, drogeriak ere gutxitan zapalduko ditugun.

Hurrengo punto derrigorrezkoa: kotxea erre. Ibiltzea oso osasuntsua da. Bilbo edo Donostia batetan, inoiz ez dago ordutik

gorako ibilaldirik. Herrietan esan beharrik ere ez dago. Eta egitekoa luzeagoa balitz, bizikleta hartu.

Asteburuaz kanpora joan nahi duzuela? Tren edo autobus egokirik beti bezala ez dagoela? Kotxea alokatu. Gehientzat bide hau askoz ere merkeago dateke norberaren kotxea edukitzea baino. Pentsa honetaz zenbat diru datorren (eta esandako guztia oihartzun sozialean ezertarako sartu gabe).

Asteburu hoietan zenbat gauza egin daitezkeen? Mendira joan. Lekuak eta jendea ezagutzera joan (baraua egiteko egun idealak; bi laranjekin ere nahiko). Etxean gera, edozein zaletasun beharrezko denboraz elikatzen... Zinera edo joan (bai, bai; gastu batzu kentzeko zailak dira, nola ez! Liburuak berak ez dira dohainikoak). Segi dirua ez gastatzen.

Elikadura, denetako dendatan —xede jantzi, arropa gutxiz, ahal dela naturalak eta norberak egindakoak; oinak airetan eramaten saiatu—, garraioan, biziotan, argitan, etxe-gastutan... dirua soberan dugu dagoeneko!

Zer lortu dugu? Osasuntsu bizi, zorion handiagoz, lasaiago, stress —maila handi bat baztertuz, libreago noski... ai! ... Bai-na...!

Tabernari, dendari, mediku, jende asko lihoake langabezira.

Pentsa, hainbat industri arlo behera botaz gero —telebistak, kotxeak...— Egia da ere lan gutxiagoz nahiko izan zitekeela, garraio eta herri-hiri konponketan lanpostu berriak sortuko liratekeela; dena den, krisia gogortu egingo litzateke. Gainera jendea libreago egongo zelarik, agian nahastaegileak bihur litezke, eta gizartean konbultsioak leudeke.

Seguru Bilbo handiko bizilagunek ez luke-tela gehiago kutsadur egoera onartezin hau isilean jasango. Beronek batek daki zein irtenbide eduki lezakeen.

Bai, bai, egia. Hobe lehengora jotzen badugu. "Más vale malo conocido...". Bai, irakurle tripazaia. Seguruen hire irrifar maleziosoak arrazoi osoa zian. Bidezkoa denean, amore ematea bidezkoa izaten duk. Goazen elkarrekin, txuleta eder batzutatuz gorputza usteltzeaz batera, gure bizimodua goxatzera.

OHARRA: denetariko lagunak ditut, tabernariak, medikuak....

tzen ari? Bi puntu: zuzen janez gero, askoz gutxiagoz nahikoa da. Digestio-aparatua garbi edukirik, gorputzak ez du geragabean jatekorik eskatzen. Sabela hutsa edukitzeak

BIHAR EGUZKI

**TXURI GORRINGO,
MARIGORRINGO,**

GOIZUETAKO MIXIYUA

“.....
misionistak izandu dira
Goizuetako partian
oien bisitaz oroituko naiz
bizirik nagoen artian.”

“.....
misio santu ontako hitzak
ondo goguan artzeko
munduan ongi portatu eta
gero zeruan sartzeko”.

“Ministro oiek izandu dira
predikadore sortillak,
lendabiziko gizonengatik
izugarritzko batallak;
gero alboan artu dituzte
neskatxak eta mutillak,
azkenerako astindu dira
atsuen patar-botilak”

Ai ene! Jakin balu Txirritak garuko
“misionista-ministro-predikadore sor-
tillak” zeintzu diren ¡Ai ene! Jakin balu
Txirritak Goizuetako kemena, semena eta
abizena eramango zituen baten (XX
Goizuetan) Coca-Cola Txinan salduko zuen
lehenengoa izango zela! Bai, bai, gero eta
atxinatuta gutxiago dagoen Txinan, bai,
bai, hantxe bertan. Jakin balu Txirritak
nortzuk astinduko zituzten azkenean
patar-botilak ¡Jakin balu zertan bilakatuko
zen patarra! Jakin balu...

Txinan iraultza kulturala egin omen zu-
ten. Eta ni hortan nago. Honekin batera,
iraultza berdea ere egin omen zuten.
Behin irakurri nuenez, Txinako bideak,
kaminoak, luze-luzeak dira, kristonak, eta
herri batetik bestera joaten denbora asko
pasatzen da. Hain luze izanik soberan da-
goena (KK) botatzeko gogoia zartzen zaio
bati. ZER EGIN? Lenin-ek bere liburu os-
petsuan idatzita zuenez, pertsonen zera
ongarri da lurrerako, nekazaritzaren fabo-
rez. Eta txinoek borda antzeko batzu
eraiki zituzten bide guztietan ibiltari kaka-
zale guztien mesedean. Eta gogoz egiten
omen zuten!. Gero, kamioi berezi bat pa-
satzen zen uzta batzen eta, honela, lurre-
tik ateratakoa lurrera bueltatzen zen. Ez
litzateke ideia txarra izango gauza bera
lbalaldietan, kilometroetan eta korriketan

egingo balitz ¡Hainbeste jenderen energia
(biomasa) ezin galtzen utzi!

Baina orain, Coca-Cola-rekin gauzak
zeharo aldatuko direlakoan nago, Coca-



Cola edanda ez da gogorra ateratzen zirri-
na baino, eta lurrera botatzean kultiboa
lokaztuko dira, arrozaren faborez eta
herri-gastronomiaren kaltez.

Ezin dut inola ez imaginatu berrehun mi-
la txino kalimotxo edaten Sanghaiko
gaupasa batetan. Ez, ezin dut.

Baina horrela da, eta zer egin behar!

Gainera, txinoak ez bakarrik hartzen,
ematen ere ondo dakite. Horren froga
aurtengo Aberri Egunean daukagu, Bilbo-
ko Erakustokian, hain zuzen: Campeona-
to de Taekwondo, oso ondo. Ez ote da
maoistaren bat esfera horietan sartuta
egongo? Erantzuna, urrango hauteskun-
deetan. Eta egun berean, Gernikan, Iru-
ñean... beste taekwondo-mota. Ai ene!
ez da gurea ulertuko duen kristaurik!

Eta kristauak aipatu ditugula, zer deri-
tzozue aurtengo bueltadeespañari? Bai,
argi eta garbi dinot: deespañari, hemetik ez
da pasatzen eta. Nafarroatik ere ez.
Gainera rollo ederra hantxe montatu dute-
na. Del burgo txapela begi-begiataraino
sartuta baino ez zaio jadanik falta Telena-
varrako lokutura-buru izendatua izateko.
Zer Fasa?

EURIA

EGINGO

Baina guk ondo dakigu geure burua defendatzen. Everesteko izan bazen FRANCO ondoren ESPAÑAKO kapitalismoak hartu zuen lehenengo kolpea, bigarrena

urrengo egunean argazki makabro hura baraurik ikustean,... bai, bai, Madril... bai, bai, horrekin berorrekin... zelan azaldu hori danok buruan dauzkagunen aurrean?



eman berria dugu: GIJON 26 A. Erreala campeón! eta ez zen bat izan, hamaika baino! Baina pozgarri gertatu bazen ere,

Eta bitartean, Zubieta bai, Zubieta ez, ez dakit zer, ba dakit zer. Eta bitartean ZUMETA inspektore jaunak, gogoratzen ez naizen lege sotanadun baten izenean Hernaniko lizeoa ixten du; atxakia bigun bezain merke: klase-ordu batzu galdu dira. Eta zer? Basamortua ba dugu (Herriberako Bardeak), piramideak ere bai (XX, XX, XX), orain faraoiak datozkigu ipurtzuloa balsamatzen, baina, NOIZ etorriko dira Nefertitiren aizpak? Klase-ordu batzu galdu direla! Nuklear-hatsa arnasten da batzuren artean! eta anbientadorea ezin erosi multinazional berak egiten du eta! Bai, nuklearkeria inposatu nahi digute, eta hortarako "progreso" hitza erabiltzen dute. Bai, progresoa, XX. mendean, progreso izeneko mendean, sasi-aberastasun eta despilfarroaren mendean, gosea nagusi bilakatu da. Marinaleda gogoan zaitugu!

Krisia aurrera doan neurrian hobe ikusten da panorama, hobe nor den bakoitza. Galdetu bestela Andaluzian gosez hiltzen ari direnei, eta hau guztiau, hango beste batzu hemen ostiak adestajoz ematen ari diren bitartean, País!

Eta gosearen kontra altxatzen direnak, horientzat kartzelak, demaximaseguritatekoak. Eta gosearen kontra altxatzen direnak, horientzat kartzelak, demaximaseguritatekoak. Eta gosearen kontra altxatzen direnak gosez hil behar. Bai Sigurd Debus gogoan zaitugu. Bai Bobby Sands gogoan zaitugu, bai gogoan zaituztegu zuek baitzarete ogi berri baten legamia berria.

Ez, ez zarete hil, hil egin zaituztete, baina hala ere gurekin zaudete eta gu oraindik ez gara hil, oraindik ez gaituzte hil, eta gose gara...

Eta "Marigorringo, txori gorringo, bihar eguzki ala euria egingo?" esaten kloakara abiatzen nauen autopista batez noa OTANeko MIRAGE batek nire txapelaren buz-tana ateratzen duen bitartean...

IDAZTEN

Hasten naiz idazten gaur, egun seinalaia bat, 1981.eko. Maiatzaren egun bat baita, nahiz eta egia esan, egunak oro dirade egun seinalatu, egutegiaren markatuak, mila begiz so eginak ia-ia eskela ilunskak bakartien gisa. Baita ere eta gainera ere hitz apalen mordoak ez dauka bere baitan baizik eta bere baitanago bizitzaren monografia eraskotakoek prestatzen dioten argitasunezko mahatsa eta mahatsaren ardo odoleztatuak ez dazaguke askotxo ezta ere gehiegi morbidotasunaren ostatua eta alaitasunez baina serio ohoratu beharko du solasketaren haspide herabetia. Bestela kadentasanak, isilkari, atotsiko du bere altzotan mihiaren beroa, airean, soilik, oihartzun urrunarren garraixi indar-gearatuz. Nahia bakarrik gearatuz: nahia biluzia.

BAINA saiatu, beti behar gara saiatu, ahalegindu, senperrenak egin behar ditugu baldin eta ez bagara melodrama baten aktore izanen geure inpotentzia, geure pobreziaz konturatzean. Ideiak ez baitira, ez eta ez, almendrondoaren lore zurigorrikakoak legez ernamuntzen edarrezko mantu irudiz eremu idor eta agorretan, ur hozkari gabarik; ideia-lurrak ureztatua izan beharra baitauka, ongixeno elikatua eta mainatua izan behar baitu uzta emateko. Gidari bat behar dute gure ideiek ere, lemazain trebea ez daitezen gal itxaso zabalean noraezko unztia bezala, behin eta okerbideetik abiatuz gero zailegi baitateke hutsak adabatzea asmoak ontsak izanda ere. Rousseuren Emilio izan behar dugu berrito, bizitzatik bertatik ikasi, izadiaren ostari betikor izan, baita ere liburuetan barna igeri egin.

Idazten ari naiz zer idatzi eta zertarako idatzi jakin gabetua, hitzak agian herdoilduko direla orri itxietan susmatuz; eta jarratzen dut bukatu arte denak amaiera baitu. Idazten dut saiatzearen oxigenoz oxindua, indarrezko hauspo batek aireztatua; itsasikaran murgildurik nabil idaztean eta idazten jarratzen dut.

Karlos Santisteban



PRONTXIO

NIK ERE IKUSI NAHI NUKE

LA BIEN APARECIDA

Unbe gainara igotzen garenean, Bilbotik gatzela, gainatik 200 metrotara edo, seinale batek eskumaldean adierazten digu "la bien aparecida"-ren hermitara joateko han bertan sortzen den gurdibidean zehar jo behar dugula. Egia esan, delako seinaleak aspaldian ikusi eta kasurik egin bage aurrera jotzen genuen. Behinola, kuriostatez jota, abiatu ginen bidexka lohitsu eta harritsu hortatik, maldatik behera. Monjen kolegioetako autobus bat sartu zen gurdibidean zehar erruedak ere basatzen ondaturik utziz. Ume guztiak kanpora, bizpahiru monjekin batera hermitara abiatu ziren. Txofer gaisoa mekaguenka geratu zen eta ama birjina aserratu omen zitzaiolako ez zion egun hartan miraririk egin. Azkenik, auto-stop eginez, joan omen zen Bilbora garabi baten bila.

Ez zegoen jenderik ugari baselizatxo ondoan. Hermita baino, etxeño bat, orma guztiak erliki bitxienez estalita; gurutzifikak, estanpak, arrosarioak, argizariak, plastikozko loreak, irudiak, santu eta ama birjin guztiekin batera, erdal letrero batzu nahaspilo ikaragarrian. Atso batzu nigarrez, oihal beltza buruan, belauniko. Estremeño, castellano, andaluziar eta gallego atso agurek osatzen zuten egun hartan made in Spain-en inprimatu posta txartel antzeko hura. Monjek bitartean neskatxei eragiten zieten hermita aurrean zegoen putzu edo eta bazkatik uraz igurtzi zitzaizen oinak eta besoak. Inola ez gorputzaren beste atalak. Ikus nezakeen pornografikoena, monja loditzar eta anti-erotiko baten izterra izan zen. Plaut! bota zuen bere izter zimurtsua bazkara eta ezin atera. Eskerrak neskei. Ez nuen goitik eman (1). Gogoa euki aldiz, handia. Urak lohi zeuden. Goiko iturburutik bazkaraino erortzean harez eta basaz nahastatzen baitziren. Nahiko mirari zela pentsatu nuen. Nahiko mirari inork izurriterik (2) ez harrapatzea hainbeste urtetan.

Berriro ere maldatik gora abiatu ginen lasterka. Ikusitakoak nahiko ematen zuten pentsatzeko. Bisitari guztiak, kolegioa salbu, kanpotar zahar eta sineskorak ziren. Euskaldunik eta vascongadorik ez zen nabaritzen. Horregatik al zetorkion altxor horri nabaritu nuen erdal giro astuna?

Hala ere, guzti hori duela bost urtetako pasadizoa da. Autonomikorik gabe. Baina gauzak aldatuz joan dira eta aintzinako pasadizoari jende asko omen dabilkio berer ez daukan garrantzia senetik atera nahiez.

Entreviu errebistak ere erreportaia egin


du hontaz. Halako istoriotan errebistak izan duen ustea jakinda, gauzak puntuan ipintzen saiatuko zela pentsatu nuen baina hori egiten ez duela konturatu naitz.

"Bilbao puede convertirse en el Lourdes español" dio errebistak. Kanpaina on bat muntatuz gero, laster ekit ditzakegu hemen Espainiako atso zahar tota eta sineskor guztiak Terrorismoaren kontrako gurutzada bati laguntza emanez. Ikusiko dugu.

BERROGEI URTETAKO ISTORIO BAT

Istorio hau ez baita hasi orain bost urte Esten denez, berrogei urte baditu. 1941. urtean hasi omen zen. Martxoaren 25ean

Gau hartan Felisa Sistiaga haurrek



Istorio hau ez da gaurkoa. 1941. urtean hasi omen zen. Orain aldiz "Lourdes español" bat bihurtu nahi dute espabilitu batzuk Unben agertzen omen den birjinaren ondoan.



bakarrik dago Unbe-mendiko magaletako etxetxoan. Senarra basozaina da eta Euskal Herriko seme askoren antzera, taberna bati untzeak (3) ipintzen ibiliko zitzaion. Senar emazteak bizi diren etxetxoak Bizkaiko Aurrezki Kutxarena da, prestetua ez, alokatua, lanaren truke. Haurrak lo zorroan daude baketsuki. Halako batetan gure Felisak ate ondoan zarata entzuten du. Lehiotik zehar argi bizi bat kanpotan biztu dela ikus dezake. Izua ez izuz kanpora doa eta hara non ikusten duen ama birjina, aulki batetan belauniko, altxoretan bi kandela handi dituelarik. Bektz jantzita. Oso neska ederra zirudien. Ha

mazortzi, hemeretzi urte besterik ez luke izango. Majo eta nahiko. Gainera, begi urdin zabal eta bizi, ezpain gorri eta mami-tsu dituela dio Felisak. Andreak aditzera eman nahi duenez, birjina oso erotikoa da. Titi handi oso ongi kokatuta omen dauzka. Felisak jakina, ez du kondatzen hala.

Ama birjin oso beltzarana. Erdi-morbosoa; Andaluziako daiteke? Nork jakin?

Felisak negarrez dagoelarik, berarekin eramateko diotso: "**Eroateko hemetik, hemetik eroateko, eztaixu zelako zoritzar handia deukoten**".

Baina ama birjinak ez du erantzungo ez eramango ere.

zuen poza azken hitz horiekin. "**Alde egiteko etxe honetatik, nirea da ta**". Akabo gau pasa bakarrak, pentsatu omen zuen.

Birjinari dagokionez ez dela birjin progresista bat esan dezakegu. Aurpegi eta oinak garbitzea soilik permititzen du. Titiak eta izterrak, demasie. Baina ez da hor gelditzen ama birjinaren integrismoa edo ezker muturzalekeria? **Komando antikapitalistaren** bat osatzen duela pentsatzeko ere franko dago. Ez al da etxea Aurrezki Kutxarena? Komando antikapitalista baten partaidea edo **Cristo-Rey**-koa ote da gure ama birjina? Ez al daki maizterrak ez direla plantatzen kalean egunetik egunera? Jabego pribatuaren ezaguera ongi mamiturik dauka gure birjinak.

Baina birjinaren mirari ospetsuena, jesuita bat birbiztea izan da. Ez edozeina. Deustuko unibertsitateko jesuita.

Pascual Manuel Iribarri e Iturrioz apaiz jesuita Bilboko San Antonio poliklinikara abiatu zen egun batetan Unbeko ur miragarri litro batekin. Bertan, polikliniketan, beste jesuita bat zetzan gaisotasun misterioitsu batek jota, **J.M. Belaustegui y Arrillaga**. Zoritxarrez, Bilbon dauden autobusak daudela, beranduegi iritsi zen klinikara eta Belaustegikoa jadanik zerraldo zegoen. Baina Pascual Manuelek ez zuen horratik burua galdu. Gorputz hilotzaren gainean litro guztia bota zuen eta dardaraz Belaustegitarra birpiztu egin zen. Ez dakigu baina, hoztu egin zen ala ez.

Jesuitek **TUGBSA** delakoaren akzio-etako parte handia dutenez gero, autobus zerbitzuak gehiago murrizteko ustetan omen daude. Hala eginez, jende guztia beranduago iritsiko litzateke eta mirari gehiago egon ere bai.

AUTONOMIKOA, APEZPIKUA ETA POLITIKA


Unbeko alderdi hortan, etxe inguruan eta barrenean ere, edozelango propaganda politikorik papertxoak eta abar botatzerik oso debekatuta dagoela jakinarazi du birjinaren aldeko erakundeak. Delako honek zaindari batzu prestatu omen ditu kontragauzarik gerta ez dadin. Ez dugu oraindik morroskorik ikusi alderdi haietatik baina ba liteke autonomikoarekin batera hertzain bat edo bi ipintzea eta jende asko txakez aldatzen ongi dakienez gero, gure birjinhau euskaltzalea bilaka daiteke erakunde guztiarekin batera. Konstituzioa onartuz, ez litzateke arazo handirik egon behar eta mirariak bi hizkuntzatan egingo lituzke. Terrorismoaren kontrako agiri edo komunikatu bat prestatzen ari omen dela gure birjina esaten ohi da oraintxe Unbe mendiko inguruetan. Laster aterako du terrorismoaren kontrako lehen komunikatua. Bitartean apezpikua kezkatu omen dabil. Medikuek ere lanean gelditzeko arrisku handia ikusten dute birjinaren mirarietan.

Obispuak hari guztiak lortzen eta lotzen ere saiatzen da. Sinesten hasteko euskaltzaletasun gehiago eukitzea eskatu omen dio birjinari, **UCDK EAJ**ren kontrako konplot muntatua dela ematen baitio.

Eta euskaraz hasiz gero nola hasiko zaigu? Batua egiten? Ez, hori ez, bestelani ere konbertituko nintzateke!!!

- 1) vomitar
- 2) infekzioa
- 3) iltzeak

T. Trifol



Osasunketa eta gizarte-asegurantza sailak parte hartu beharko luke. Hainbeste buztiketa dela bide, bakteriek eta gainerako kokoek ez dute sinesten mirarietan.

AMA BIRJINAK EZ DAKI EUSKARAZ

Harik eta urte batzutura berriro ere agertzen zaio ama birjina. Beti bezala, Felisak euskaraz galdetzen dio. Erantzunik ez ordea. Ez du ematen "**la bien aparecida**"-k euskaltzalea denik. Behin, galdera erdaraz eginda, oso ongi erantzuten dio erdara batuaz: "**El primer día que vine a salvarte baje al pozo y desde hoy esta agua está bendita y curará a los enfermos y a los sanos que se laven la cara y los pies. Además quiero que te marches de esta casa porque estais en mi casa**". Zer esanik ez Felisak hartu

JESUITAK ERDIAN

Ordudanik hona, mirariak bazter guztietatik agertu dira. Ingeniariak, etxeo-andreak, monjak eta moro bat. Beroni dagokionez normal topatzen dut, **Mahoma** ez baitzen gauza, halako mirarik egiteko. Esaten denez, gure moroa..."

..."**fue vigorosamente atraído por el singular hechizo que esta madre del amor hermoso ejerce sobre los hijos del Islam**" Tumatxa! Halako titi, begi eta ezpainekin nork ez gero! Konbertsioetik hona, gure moroa asko argaldu omen da eta baita aurpegia zuriagotu ere.

Erliziozkoa Euskal Prentsan



Una pequeña aproximación a un análisis esquemático

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Herria 2.000 Eliza, denok ezagutzen dugun aldizkari hau, 3. urtemugara iritsi da.

Hori dela eta, hona hemen omenaldi gisa beraiek euskaraz argitaratu artikuluetako bat, hartu duten hildoari (medio de contrainformación en la sociedad y en la Iglesia) kemen biziari jarrai diezaioten. Anaitasuna.

Aldizkariaren zuzendaritzak eskatu dit gai honetaz zerbait idazteko. Hasteko, baiezkoa eman dut. Baiezkoa esatean bertan izan nituen kezkek, ordea, handiagotu egin zaizkit, artikulurako eskema lantzean eta ondorengo lerro hauek idaztean. Izan ere, prestari buruzko azterketaren bat egiteko, bietako bat izan beharra dagoela iruditu zait: soziologoa edota kazetaria. Ni ez bata ez bestea naiz. hala ere, ausartu egin naiz, euskal prentsaaren parte on bat behintzat jarraitzen dudalako, irakurle bezala, eta euskaldunon artean erlijioaren fenomenoak nondik nora dabilen barne-barneki kezkatzen naudelako.

Artikulu hau ez da, beraz, soziologikoa. Hala ere, eta gero agertuko dudan bezala, neure inkurtsiotxoan egin dut soziologiaren alorrera ere. — Barkatuko al didate soziologoek!. Horrelako azterketaren egokitasuna eta premia behintzat habarmenago geldituko dela uste dut. Horretarako eskema modukoa izan daiteke agian oraingo hau. Horretarako eskema modukoa izan

daiteke agian oraingo hay. Neure aldetik irakurle baten ikutuak eta gogoetak emango ditut bereziki.

Eta aurrera jo aurretik, eta adiskideen asmoa ulertu nahirik, honelatsu daitekeela uste dut, tituluari adierazten den galdera: Zenbateraino kezkatzen du euskal prentsa erlijioaren fenomenoak?. Zein aldeetatik datorkio agertzen duen interesa? Noraino sakontzen da erlijiozkoaren albiste eta gaia?

Parece que el tema religioso interesa más por sus relaciones con la ética o la política que por sí mismo

Jakina, euskal prentsa ez dago batean, osoan eta orokorki hartzerik: egunkari eta aldizkari bakoitzak bere erara erabil-

tzen du; eta bakoitzari begiratu beharra dago.

EUSKAL PRENTSA SAILKATUZ

Zein da euskal prentsa? Ez nator betiko eztabaida astintzera: "Zein da euskal literatura, zein da euskal kultura, zein da euskal prentsa?". Artikulu honetarako aski dut mugapen hauxe: Euskal prentsa Euskal Herrian eta bereziki Euskal Herrirako egiten dena da. Euskaraz egiten den ala ez eta zenbat egiten, honetarako zera honegatik bakarrik izan daiteke jakingarria: Aldizkaria norako den jakiteko. Baina hau ere gehiago mugatzen dute irakurleak eta prentsa erabiltzen dirten gaiek.

Egunkariak. Euskal prentsa aipatzen aurrenik egunkariak kontutan hartu beharra dago. Zalantzarik gabe, euskal gizartearen dinamika jasotzean eta eritzia eratzetan, egunkariok dira garrantzikoak. Une honetan hauek dira euskal egunkariak: **Correo español-Pueblo vasco** (Bilbokoal

Bilbao Editorial-ak argitaratzen du eta gehienbat Ibarra familiaren eskuetan dago; Deida (Bilboko), Iparraguirre S.A. da jabea, eta PNV-EAJren politika eta ideologiaren bidetik dabil; **Diario de Navarra** (Iruinekoa), akzioak oso sakabanatuak izanik ere, Urangatarrek dute indarrik handiena; **Egin**, 23.000 kontupartaideen dirulaguntzaren eta "fundatzaileen" abal pertsonalen gain eraikia, Hernanin argitaratzen da; **Diario Vasco** (Donostiakoa), Bilbao Editorialak du akzioen gehiengoa; **Gaceta del Norte**, Gonzalez Barandiaran, Urquijo eta beste dira horren jabeak; **Hierro**, lehen Sekretaria General del Movimiento-ren eta orain Gobernuaren eskuetan dago; **Norte Express**, (Gasteizkoa), Orioldarren eta

rren hanitzasunean onartu egiten da, eta dagokion lekua ematen zaio prentsari ere.

b) **Aukera ideologikoaren mailan:** Gizartea eraikitzeko eta sendotzeko erlijio edo konfesio konkretu bat aukeratzaren da, prentsa-organoa bera konfesionala bihurtuz

c) **Fedezko testigutzaren mailan:** Fede-alkartearen oinarritzat eta muintzat hartzen da erlijio-konfesio konkreturen bat, eta hori argitzeko eta zabaltzeko erabiltzen da prentsa-organoa.

Maila hauen arabera sailka daitezke euskal prentsaren organoak ere.

Ikuskera militantea (hirugarren mailakoa) duen prentsa ugaria da Euskal Herrian. Horien artean sartu behar dira erlijio-

ruan. Joera honetakoak direla esan daiteke: **Egin** eta **Sud Ouest** egunkariak, eta **Punto y Hora** eta **Ere** aldizkariak, besteren artean; hauen artekotzat joko genituzke **Argia** eta **Anaitasuna** ere, nahiz eta neurri on batez erlijio-institutuei lorutik egon. Beraien aukera aparte, katolizismoari buruzko informazioak eramaten du erlijioari ematen zaion lekurik handiena, gure gizartean horixe delako garrantzikoena eta nagusi. Baina, berriemate eta guzti, erlijioaren kritika askozat nabarmenagoa da prentsa honetan.

ERLIJOAREN TXOKOA

Ikuskera konfesionala (ez militantea) eta ikuskera kulturala duen prentsari begiratzeari dagokigu. Zein neurritan eta zein eratan erabiltzen dute egunkari-aldizkari hauek erlijiozkoa? Aldizkariak (astekariak, hamabostekariak, halibetekariak) eta egunkariak bereiz azter daitezke, haien eta hauen albistearekiko dinamika nahiko ezberdina delako; agian erlijiozkoaren albisteak ba du bere dinamika berezia gaurko gure gizartean, agian aldizkariari hurbilagozten zaiona.

a) **Euskal Aldizkariak.** Hauek ez dute sail berezi eta finkorik erlijiozkoaren berri (iruzkin nahiz kritika) emateko. Hala ere, denek eskaintzen diote sarritan edo aldizka orrialderen bat. Baina hauetan ere, erlijiozkoa bere horretan erabili beharrean, gehiagotan erabiltzen da etikazkoarekin edo politikazkoarekin zerikusirik duen neurrian. Orduan ba dirudi, benetan erlijiozkoa berea baino interesgarriagoa dela horrek politikari nahiz moralean duen eragina.

Joera apologetikoa nahiz kritikoa, biak aurki daitezke euskal aldizkariaren erlijio-orrialdetan: konfesionalak gehienetan erlijioaren edo erlijio-instituzioen defentsa

Nuestros diarios no tienen una sección fija de religión. El tema religioso aparece en otras secciones: internacional, estatal, E.H., cultura o sociedad.

Fournietarren eskuetan, besteren artean; **Sud-Ouest**, Bordaleko egunkariak, argitalpen berezia egiten du Ipar Euskal Herriarako

Bederatzi egunkari dira, beraz. Baikoitzaren jabea zein den jakitea interesgarria da, ideologia orokorra eta bereziki erlijioaren erabilera ezagutzeko eta ulertzeko. Esan beharrik ez dago, egunkari guztiok albiste orokorrak ematekoak direla.

Aldizkariak. Hauen artekoak dira astekariak, hamabostekariak nahiz hilabetekariak. Epe luzeagokoa argitaratzen direnak ez ditugu kontutan hartzen, alorren baten inguruan berezituak izaten direlako; egia esan, hauek ere aztertzeak mereziko luke, baina ez dago prentsa bezala hartzerik, besterik gabe.

Aldizkariaren artean, guri orain dagokigunez, bereziki nagusi bat egin beharra dago: **Erlizozko aldizkariak** eta denetarikoa albisteak ematen dituztenak. Erlizozko euskal aldizkariak —denak, uste dudanez— katolikoak dira. Nik dakidanez, ez dago erlijioaren fenomenoak, bere zabalatasunean aztertzen eta horretaz berri ematen duen euskal aldizkariarik (agian interesgarria litzateke): ez dago, beste Erlizjo edo Konfesioaren aldizkariarik ere, nik dakidanez. Erlizozko aldizkariak ez ditut izandatu.

Denetarikoa albisteak ematen dituzten aldizkari euskaldunen artean hauek aipatu behar dira: **Anaitasuna**, **Argia**, **Ere**, **Goiz Argi**, **Herjia**, **Punto y Hora**; **Zer** (?). Legez zer diren alde batetara utzirik, guzti horiek informazio orokorrekotzat jo daitezke. Eta horrexegatik da interesgarria horien erlijioari buruzko jokabidea. Alde batetara utzi behar dira noski, erakundeak, taldeen edo herrietako eta auzoetako boletinak.

ERLIJOAREN IKUSPUNTUAK

Hiru mailatan ikus eta erabil dezake erlijioa eta erlijiozkoa prentsak:

a) **Kulturazko fenomenoaren mailan:** Munduan eta inguruan erlijiozkoa benetako behomeno soziala dela ikusiz, bero-

institutu eta erakundearen boletinak, kulturedo liturgi orriak eta aldizkariak, teologi aldizkariak, misio-aldizkariak edota propaganda erlijiozkoak aldizkariak. Joera honetako euskal prentsa katolikoa da ia dena —agian den-dena—. Eta artikulua honetan gutxien prentsa delako, eta, beraz, erlijioa dutelako bere gaia, nahiz eta bide batez erlijiozkoak ez diren gaiak erabili.

Ikuskera konfesionala (bigarren mailakoa) du informazio orokorreko euskal prentsa gehienak. Hauetako gehienek ere konfesiokatolikoaren aukera egina dute, nahiz eta inoiz beste konfesio eta erlijioen albistei lekurik eman. Katolizismoaren defentsa egiten da, eta horren kritika funtsezkorik ez da onartzen.



Ikuskera kulturala (lehen mailakoa) aukeratu duten egunkari eta aldizkari batzuek ba dira, ordea, euskal prentsaren ba-

daramate; ez-konfesionalak, beriz, erlijioaren beraren kritika sakonik ez dute planteatzen gehienetan, baina joeraz erlijio-institu-

zioen kritika nabarmentzen dute, eta aldi berean, instituziotik kanpoko erlijiozko gertakariari garrantzi berezia ematen diete.

Euskal aldizkarietan, azkenik, erlijiozkoarekiko ironiak bere lekua izan ohi du sarritan.

b) **Euskal Egunkariak.** Soziologian neure "inkurtsiotxo" egin zahian, zortzi egunetako euskal egunkariak aztertu nahi izan ditutu (martxoaren 5etik 12ra bitartekoak), erlijiozko albistea eta gaia nola zerabilten ikusteko. Zoritxarrez, bederatziz egunkarietatik, sei bakarrik eskuratu ahal izan ditut zortzi egun horietan. (Ezin izan, beraz, ondorio soziologiko erabateko eta azkenburukorik ateratzeko uste handirik!). Egun horietan berotian **El País** egunkariak erlijiozkoari emen dion lekua ikusi dut. Eta guztiak elkarrekin konparatuz, neure inpresiotxo eta gogoeta txiki batzu atera ahal izan ditu.

Zortzi egun horietan egunkaritan emateko erlijiozko gertakari ugari ez zen izan, ez Euskal Herrian eta ez gure egunkariok hartzen duten munduan. Martxoaren 4ean: Auster eguna (Garizumaren hasera), batetik, eta Casaroliren Erromara itzultzea, Aitasantuaren bidali bezala Txinan ibili ondoren; martxoaren 8an, Garizumako lehen igandea (benetan ez aparteko albistea) eta mutilen "Javierada" gertatu ziren. Beste gertakari handirik ez dago zortzi egun horietan; baina erlijiozko gertakarien azpitik dibortzio-legearen arazoa eta horri buruz Eliza katolikoak duen jarrera dago nahiko

pil-pil

Gure egunkariak ez dute erlijio-sailik; **El País**-ek ere ez; hala ere, bi egunkariak behintzat, astean behin Elizari buruzko saila dute. **Diario Vasco**-ren kasua berezia da aste honetan: izan ere, "Gaiak" sailean, hiru egunez, orrialde oso bana eman ditu, Filipinetan gertatu beria zen bi euskaldunen beatifikazioari eta horren inguruko ibilaldi buruz. **Egin**-ek ere bere larunbatetako **Jaieginen** orrialde bat du, erlijiozko gaiari buruz; baina, hain zuzen, martxoaren zazpian ez zuen orrialde hori sartu. Erlijiozko albistea, beraz, beste sailetan sartzen da: nazioartekoan, estatalean, Euskal Herrikoan, kulturazkoan, gizarte sailean, etab.

Egunkariari buruz eritziren bat ematean, nahiko argigarria izan ohi da irakurlearen erreakzioak ezagutzeari; erlijiozkoaren erabilerari dagokionez, irakurlearen bi gutun bakarrik agertzen dira aste honetan: biak nolabait apologetikoak.

Euskal egunkarientzat erlijiozko albistea eta gaia katolizismoarekin eta Eliza katolikoarekin berdintzen dira. Aste honetako titulu guztiak Eliza katolikoari dagozkio. Bakar-bakarrik **Egin**-ek du Yogari buruzko artikulua bat eta erlijio-kritikaz beste bat.

Laburtzeko, erlijiozkoak, kantitatez, leku zabal xamarra du euskal egunkarietan, batzaz beste; **El País**-ek baino zerbait gehiago.

El tratamiento de la noticia religiosa es superficial y sin ninguna programación. Y, desde luego, en la prensa vasca diaria, casi totalmente confesional, si bien con variantes, según las "ideologías".

Zortzi egun horietan, behin eta egunkari batean bakarrik, merezi izan du erlijiozko gaiak lehen orrialdeko titulua.

Euskal egunkari batzu ia egunero dute erlijiozko albisteren edo artikuluren bat sartzeko joera. Alde honetatik, erlijiozko titulu gehien **Deia**-k ematen du; gutxien berriz, **Sud-Ouest**-ek; **Egin**-ek ere oso urri sartzen du erlijiozkoa egunkariaren barruan.

goxeago. Baina erlijiozkoaren erabilera azalekoa eta egoki programatu gabea da. Bestalde, euskal egunkarientzat —ia denentzat— maila konfesionalan —katolizismoaren mailan— mugitzen da ia erabat erlijiozko albistea eta gaia. Hala ere, honen barruan ezberdintasunak ikus daitezke, egunkari bakoitzaren "ideologiaren" arabera.

BANCO DE BILBAO
nire soldatak
lan egiten du.
Bitartean ni atsedenean.



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu. Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharrianik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatetik.

Eskura



delakotik zure soldata

BANCO DE BILBAO

EUSKARA PLAZARA

"Euskara jalgi hadi plaza!" Horixe zen gure lehen idazle Etxeparek XVI, mendearen erditsuan ozenki haizeratzen zuen gairaisia. Ordudanixek gaur arte euria gogotik

kanpaina izan zela-ta). Milaka deihadar entzun da, askotan agian oihartzunik gabekoak baina.

Oraindik orain gure Euskal Herrian, nahiz

eta 600.000 bat elebidun izan, erdarak dira nagusi kalean, eskolan, unibertsitatean eta mass media guztietan. Gobernu Baskongadokoek, agindu anitz eman digute eta beti-re euskara goraiatzan dute hitz paternales baina deusik ez eginez. Itzultzailean eskola eratu za; lehenengo pelikulak euskaratu dira (Biki bikingoa, Vacaciones en el mar, Comando G eta holakoxeak, hain zuzen ere eta irrati eta telebistarako jendea prestatzen da. Hor ari dira adoretzuki euskarak pairatzen duen egoeraren kontra Euskal Herrian Euskarae-koak, egoera berori salatuz, bi-deetako errotuluak euskaratuz... (Oraintsu Donostiako "Radio Nacional"-etik komunikatu dat irakurri zuten euskararen bazterketa irratiaren kondentatuz).


Eta gauzok ez dira aldatzen, entzungor asko ei dago. Hobetu ezik, beharbada gaitzagotu, kasu askotan behintzat. Hor dugu euskal prentsaren kasua. "ARGIA" larri dabil; "ANAITASUNA" hilabetekari bihurtu da arazo ekonomikoengatik, "O EUZKADI" "JAKIN", "ZEHAZ" eta besteak ez omen dabilta oso txairo, (Horretarako dirurik ez dago, aldiz, "Ajuria-Enea"-ko inguruak edertzeko 40 milioitako presupostu bat onartu da...) "DEIA"n eta "EGIN"en, leku exkasa du euskarak. Alderdi eta erakunde abertzaleen idazkietan eta daramaten praxian herren dager euskara.

Eta euskaldun berriak sortzen dira, bai, baina egoera honetan euskara harreman guztietarako adierazpide izatera ailegatuko ote dira? Non ezkututzen ote dira 600.000 (seiehun mila) euskaldun horiek? Noiz jalgi-ko dira kalera?

Bai, orenen gainetik edonon eta edozertarako euskaraz baliatu behar gara baldin eta biziko bada. Geure nortasun eta idiosinkrasia bereziaz konturatu beharra dugu eta geure ERRESPONSABILITATEAZ kargu egin. Euskarak bere lekua okupatzen ez badu, hein handi batez, gure erruagatik beragatik da. Euskadi exijitu behar dugu. Euskaraz hitz egitea exijitu behar dugu. Otsoen artetik baldin bagabiltza ere, ez gaitezen gu ere otso izan. Euskara komunikabideetara eta batez ere kalera! (Tristea bai tristea, bestela, geroko batez haxe kantatu beharra:

"Euskadiko Herria
madarika dadila
euskarari eman dio
benetako kolea")

Karlos Santisteban



ari izan du Euskal Herrian eta baita ere eguzkiaren errainuak sentitu ditu gure lurrak.

Halarik ere, errealitate bihurtu dea oihu hori, euskara plazan ote dugu? Argi dago ezetz, etsipenez eta saminaren saminez esan behar ezetz.

Frankismoan euskara ilunpera kondentaturik zegoen, oraindik orain higuinez gogoratzen ditugula gure Herria kultur genozidiorantz eramateko egin zituzten saiakerak, eskolan euskaraz mintzatzea galerazita zegoela eta gartziguak eta "eraztun" famatuak ezartzen zizkietela haurrei. Frankismoan bertan, 1960.aren inguruan, lehenengo ikastolen jaiotzearekin eta idazleen belaunaldi berri batekin, ba dirudi euskararen berpizte bat argitaratu zen: "harri eta Herri". Haize berriak datozkio euskal literaturari.

Diktadorea hiltzean, Euskal Herri osoa kaleratuko da bere eskubideen alde, indarrez lapurtuak, borrokatzera. Eta borroka global beronen parte bat euskararen aldekoa da, bere leku berezia irabazi duelarik azken urteotan.

Behin eta berriz kaleratu behar izan dugu: ikastolen alde, euskara eskoletan eta komunikabideetan sartzearen alde, euskal unibertsitate eta prentsaren alde... (baita ere Euskaltzaindiaren alde "bai euskarari")

PERTSONA, MOZORRO ALA NORTASUNA?

Norbaiti astakeria bat irudituko zaio Billy Wilderren "Fedora" eta David Lynch-en "El hombre elefante" filmeak artikulo berean sartzea.

Ez da izan ikusketaren hurbiltasunak hortara mogitu nauena, bi filme hauek oinarritzat duten gaiak baizik: Itxura eta espektakuluaren zentzua.

Giro ezberdinetan gertatu arren, bietan azaltzen zaigu espektakuluak berarekin dakarren banaketa: Pertsonaia alde batetik eta ikuslegoa bestetik eta bata, bere errealitatearen edo fikzioaren esklabutzat, bestearekin dituen loturazko erlazioak. Bi filme hauen pertsonaiek, bere errealitatea argitzen duten elementuak ("Fedora" ren eskuak edo Merricken burua) ezkatatu beharko dituzte, ikuslegoak egia jakin ez dezan.

Biak bigarren oportunitate batekin topatzen dira. Fedorak bere alabarengan aurkituko du bere eta gizon elefanteak sendagileak eskeintzen dion bizimoduaren Atzean geldituko dira bai Hollywood eta baita Merricken etxola ere.

Bietan azaltzen zaigu espektakulua posible eginen duen pertsonaiaren bila doan pertsona berezi bat: Sendagilea kaso batetan, produktorea bestean.

Azkenik espektakuluarekiko dependentziak eramango ditu bi pertsonaia hauk beren nahigabe guztiak bukatuko dituen heriotz triste eta askatzaile batetara.

BESTE DENBORETAKO OROIMENEZ: FEDORA

Ez da inongo sekretu bat Billy Wilderren azken filmeak ez dutela oso harrera onik eduki ikuslegoaren artean. Ene ustez, ordea, "La vida privada de Sherlock Holmes" eta "¿Qué ocurrió entre mi padre y tu madre? Vienan 1906.urtean jaio zen zinegilea honen filme onenetakoa artean aurkitzen dira.

Agian Wilder konturatzen hasi da, bere adina kontutan hartuz, filme gutxi egiteko ahalmena gelditzen zaiola, harrera merkatalez gehiegi ez kezkatzeko eta berari interesatzen zaiola esateko eta mamira iristeko duen asmoa garbi azaltzen delarik azken filmetan. Pentsa dezagun ere Ford, Chaplin, R. Walsh, Hitchcock, Renoir edo Cukorren azken filmeak ez direla izan arrakasta hobea eduki dutenetakoak.

Tom Tryonen nobela batetan binarrituz (gogora dezagun orain idazle honek nortasun bikoitzaren gai honetaz ere "El otro" nobela interesgarria idatzi zuela), Wilderri, "El crepúsculo de los dioses" filmean garbi utzi zuen bezala, berak hain ederki ezagutzen duen Hollywood-eko mundua azaltzea eta honek pertsonengan uzten duen zigilua sakontzea interesatzen zaio kasu honetan.

"Fedora"-n ipar-amerikako zinemaren komedia onenetakoen Wildera ikustea itxaron duenak itxuretako munduaren ikusketa gogor honetatik defraudatua aterako da.

Marilyn Monroe edo James Dean bezalako pertsonak mitoen mundura igaro badira, azkarregi iritsi zitzairen heriotzari esker izan da. Hor ditugu bestela Elvis Presley edo John Lennon kaso berriak. Esan daiteke historian denbora bat markatu dutela.

Fedorari, ordea, platoetara itzulerak posibleak suposatzen duen gutzia gainditzea zaila izanen da eta bere alaba izanen da, bere amaren garaipenerako, nolabait, bere nortasuna pixkanaka galduko duena.

Horrek behartuko du Marthe Keller alde batetik espazio fisiko baten gatibu izatera eta bestetik ikusleen

gogoan betirako bizirik zegoen pertsonaia baten jarraitzea izatera. Ez da harrizkoa eta ez dugu ahaztu behar Erroman "persona" zela antzerkietan aktoreek erabiltzen zuten mozorroa.

Bukarera, alabaren heriotz fisikoa, berari asignatu zitzaion papera, mozorro edo pertsonaiatik askatzeko era bakartzat azalduko da.

Marthe Keller-en heriotzaren ondotik flashback bezalaz bidez egia ezagutzen ari garela uste dugu, nahiz eta hau filmaren erdian azaldu, suspensea nolabait hautsiz, baina filmeari beste dimensio bat emanaz. Hemendik aurrera Billy Wilderrek bakoitzak horrela ekiten teko zeuzkan arrazoinetan sartzen gaitu.

Era horretan, "Fedora"-k "El crepúsculo de los dioses" filmearekin duen berdintasuna nabaria da, gehiagorik gairandik pentsatzen badugu: historiaren hain eramailea bietan William Holden dela.

Aipamen berezi bat merezi du, zoritxarrez ikuslegoak eta zenbait kritikok hain gutxi preziatzen duten zinemaren musikaren arloan nabarmentzen den Miklos Rozsaren musika.

FREAKS: EL HOMBRE ELEFANTE

Avoriz-ko Zinemaldian lehenengo saria irabazi ondoren, Oskarrek dakarten eztabaidaren tartean iritsi zaigu David Lynch-en filme hau. Egia esan, Oskarrik ez lortzean, (azken urteetako sari banaketa ikusi ondoren, zorionez esan dezakegu) filme hau argiago eta osokiago azaltzen zaigu, horrek daraman sakontze ahalmenarekin. Bestela, Redford-en filmeari gertatu zaien bezala, Oskar horiek merezi dituen edo ez eztabaidatzean, filmaren gaia eta erabiltzea askotan ikutu edo aipatu gabe gelditzeko arriskua askoz nabariago izaten da.

John Merrick, gizon elefantea, ferietan erakusten duten erakamen bat da. Bere itxuragabekeria izugarria izan arren, bere nortasunaren kalitateak nabarmentzen dira biktoria garaiko zurikeriaren artean.

David Lynch-ek aukera gehiago zuen horrelako gai baten aurrean: onizko melodrama alde batetik, edo interviu antzeko harrigartasun unkiagarria bestetik. Berak, ordea, zinezko bidea hartu du, nahiz historia manikoa bat kontatuzko arriskuan erori batzuetan. Nolabait bere baitoaren oinarria duen akatsean dagoela esan dezakegu.

Egia da onegitzat azaltzen zaizkigula zenbait pertsonaia, John Merrick batipat, eta gaiztoegitza herria errepresentatzen dutenak. Baina askoz inportanteagoa da filme honetan John Merricken sentikortasuna, bere maiztasuna eta laztanaren beharra eta bere giza kondizioaren aitortzea.

Kualitate hauek ederki erakutsiko digute gizartearen murraren azalpena. Zeintzuk dira horrelako pertsonen gizartearekiko maldetaren ahalmenak, gizartea zatiketa hori sortu duena izanik eta zer den ona edo txarra, ederra edo itsusia berak erabaki baldin badu?

Bestealde, John Merricken kasoak askotan biktimaren papera jokatzea besteen kontzientzia lasaitzeko edo zuritzeko segada bat izan daitekeela adieraziko digu.

Sendagileak batzuetan bere buruari bere paperaz galdetzen dionean, jasotzen duen erantzuna ez da batere konfortagarria: Berak antzeztokiaz aldatu du pertsonaia, baina errepresentaketa jarraitzen da.

Xabier Portugal

"Bizi dezagun euskara" delako saila argitaratzen duzue eta, gogoak eman dit niri, eusko Jaurlaritzak, Aldundiek, legebiltzarreak ateratzen dituzten "agiriak" irakurtzean bapo gelditzen naizenez, halako fikziozko agiri hipotetiko bat ateratzea. Egia esan, delako agiria ESKOLA PUBLIKOA-ren aldizkariak argitaratu du erdaraz eta nik egin dudan gauza bakarra jaurlarizkeraz ipini eta moldatzea izan da. Ea nok egiten duen hobe jaurlarizkera, nik edo Bizkaiko Jaurreriaren Foru Aldundiak. Zuek ikusi.

BIZKAIKO LAN AGIRIA 1979'KO MAIATZA'TIK - 1979'KO ABENDU'RA FORU ALDUNDIA

BIZI DEZAGUN JAURLARIZKERA

IKASTOLAK JENDARTEKORRAK (1) bilakatzeko egitamu (2) orokorra

Eusko Paularitzak aurkeztuta,
Euskadiko Putzaren laguntza
axolagabearekin

"Ikastetxe (3) jendartekorrek Ingalaterran (4) sortu ziren Erdi Harroan. —Zertxobait atzeratuta gaude—. Gaur egun abiatzen dira ETON-ek eta Harrow-ek zabalduak bideetatik eta zalantzarik gabe aipatutakoa zihurki (5) lortuko dugu FERE-k emandako irakaskuntz-azkatasunaren hastapenen laguntza onarekin".

"Morroiketa (6) jendartekotzat hartuta izan ziren lenengo epe batetan eta delako ikastetxe hauen helburuak ez ziren inola ere oneginak (7) ateratzea eta horrela biztanleetako (8) ehuneko bost izatera heldu gara (langabetuen semeak (9) bertan ikasten dute eta). Delako ikastetxe hauek guztiz irabazpidetsuak (10) bilakatu dira eta honetarako Alemaniako Laterriari (11) Eusko Jaurlaritzaren ordezkari batzuk txango (12) egin zioten behar ziren irakaskuntzak (13) atereaz".

"Irakaskuntzaren nolokotasuna hobetuz joan da, onegin handiak ateratzen badira behintzat. Irabazpidetsua den bide honer jarraikiz, Euskadiko Putzak Arrasate-Mondragongo emaitzen aurrekintz-erdigune (14) ikasgarri horretatik irakaspidezko-irakuskor araudiak (15) emango ditu ezagutzera".

"Gaur egun oski-zolan (16) dauden jendariak (17) ahituz ezkeror, utsik geratutako languneak (18) beteko dira jendartekor sari (19) baten bidez. Bertan, irakasle berrien onak eta txarrak aztertuko ditu epai-mahaiak (20) eta demokratikoki. Emari-Pahaiak honela osaturik geldituko da:

- 3 atal (21) Euzko Jaurlaritzatik
- 3 atal elkarkuntzatik (E.A.J.) (21)
- 3 atal Udaleetatik (E.A.J. ren zinegotziak)
- 3 irakasle (oraindik osatugabekoa, E.A.J.-j ez du irakaslerik eta)

Delako emari-Pahai honen aurrean norberaren burua aurrez aurre ezartzea, ezinbesteko da, ondoan aipatze diren irakasle-bideetatik (23) bat gutxienez eukitzea: Derioko irakaskuntzalegoa. (24) Eskoriatzako edo eta Donostiako apaizgaitegikoa (25).

Aipatu jendartekor sariak hiru zati eukiko ditu:

- a) Erliyo-azterketa bat (eginkizunak eskatuko dira)
- b) Arana'tar Goiri ta Sabin-en bizitza eta ezagupideen azterketa.
- z) Ezkontzaren egiztabidea (26) eta ez balego, birgintasanaren zihurtagiria (27)
- d) Eusko Jaurlaritza honek ez du onartuko inolako bazterketa buru-bidetzurik (28).

Lorrala, Done Jondonearen egunean,


"DANO ONERAKO"

Eusko Paularitzak
Bizkaiko Jaurreriaren Puru Aldundia
Arabako Puru Aldundi Agurgarria
Eusko Penabiltzarrea
Euzko Alderdi Saltzalearen aldunak

- 1) Publikoa
- 2) "Plan"
- 3) Eskola
- 4) Ingalaterra
- 5) Seguraski, segurki
- 6) Zerbitzu
- 7) Mozkinak
- 8) Bizilagunak
- 9) Seme-alabak, haurrak
- 10) Errentagarriak

- 11) Estatuak
- 12) Bisita
- 13) Irakaspenak
- 14) "Centro Proceso de datos"
- 15) Arau pedagogiko-didaktikoak
- 16) "Plantilla...
personas actualmente en plantilla"
Lanean dihardutenak.
- 17) Pertsonak
- 18) Lanpostuak

- 19) Lehiaketa publikoa
- 20) Epaimahaikoak
- 21) Partaide
- 22) Federakundea
- 23) Titulua
- 24) Magistergoa, irakaslegoa
- 25) Seminarioa
- 26) Froga
- 27) Zertifikatua
- 28) Ideologikoa



Bermeotarra naizela eta, sarritan egin didate galdera hau: zelan esaten da, Bermeo ala Bermio?, eta nire erantzuna beti izanda berdina: esan Bermio esten da eta uste dut hola jarraitu behar delaesaten, baina idatzi Bermeo egin behar da, eta kasu guztietan. Dena dela, jende gutxi kontentzitu dudala uste dut.

Orain dela bi urte, Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Udalen lizentzia ateratu zuen, etahan argi dakar Bermeo forma hartu behar dela, baina ba dakigu zer gertatzen den gure Euskal Herri Euskaltzaindiaren kontra) eta beste batzuk ez dutelako gauza argi izugarria da; hori dela eta, herriko arraunlariek, kamisetetan Bermio daroate, hainbat kamioik eta enpresa pribatuk ere berdin, eta ez diot ezer komunikazio pertsonaletan.

Nik lehen zatian esan dudana nahi izango nuke argitu, hau da, zergatik ez den Bermio idatzi behar, baina aurretiaz esan behar dut, ez naizela linguista eta izateko asmorik ere ez dudala, eta behar bada inoren arloan sartzen ari naizela eta norbait aserretu litekeela, agian, intromisio honegatik. horrela balitz, aurretiaz eskatzen diot barkatzeko, nire irazkin hau nire herrikoei zuzendua bait dago batez ere.

Hemen emango ditudan arrazoiak, Bermeoko aldakuntza fonetiko etan oinarrituko dira batez ere, baina honek ez du nahi esan aldakuntza horiek hor soilik ematen direnik, inondik inora ere. Baina kasu honetan hori da interesatzen zaigun bakarra.

Bermeoko hizkeratu:

1.- Bokal baten aurretik doan E, ahozkatzerakoan I bihurtzen da.

Honela:

EA = IA
semea = semie
nirea = nirie

EE = IE

luzeena = luziena
besteena = bestiena

EI = EI

Ez da aldatzen, diptongoaren bidez bokal bakar bat osotzen dutelako.

Dei, sei, hoge, eta abar.

EU = EU

Hauek ere diptongoa osotzen dute.

Neu, zeu, geu, baleu eta abar.

Eta guri interesatzen zaigun kasuan, EO elkartzean zer ematen dute?, Logikoena IO ematea da, baina EZ DAGO ADIBIDE ARGIRIK, eta hortik dator prezeski nahastea. Nik behintzat, jatorriz euskalduna den hitz bat ere ez dutaurrekitzen EO amaierarekin, eta erdarazkoak ere gutxi, normalean erabiltzen direnak; hobeto esateko bat bakarra, eta berak ez digu askorik azaltzen, zeren, ARREO hitza, ARRI-GU ahozkatzen da.

2.- Bokal baten aurretik doan I, ahozkatzerakoan IJ bihurtzen da.

Honela:

IA = IJE
mendia = mendije
egia = egije

IE = ?

Ez dakit adibiderik dagoen, nik behintzat ez dut aurkitu.

IU = IJU

bihurtu = bijurtu

eta guretzat interesgarriena dena:

IO = IJO

balio = balijo

Beraz, EO zergatik bihurtzen den IO edo horren adibiderik ez badugu ere, ahozkatzerakoan arrazoiak argiak dira: Bermeo ahozkatzen den IO, ezin dela sekula IO idatzi. Hau azaltzeko adibideak ugaririk dira, eta herri-izenetan gainera: Elorrio, ERANDIO, Amurrio, eta abar, ELORRIO, ERANDIJO eta AMURRIJO esaten direlako, beraz, BERMEO Bermio izango balitz, BERMIJO ahozkatuko litzateke, eta ez da egiten.

Orain, noski, egongo dira nire herrian (eta ba daude ikusten denetik), ahozkatzen den moduan idaztea nahiago dutenak, eta trafiko-seinaletan, arraunlariek kamisetetan, dendetan, eta abarretan BERMIO ipintzearen aldekoak. Ba, hain zera eskatu behar zaie: arau hori aurreratueroateko gogoia badute eta trafiko-seinaleari E dakarren tokian I ipintzen badaiote, BAKIO dakarren ari BAKIJO ipintzeko, eta oraindino aurrerago eginez idazterakoan, gauzak esaten duten moduan idazteko eta ea zerk irteten duen SEGURU E LEKIDAUIELA EURE PERRO TENIKO.



Orain dela hilabete bi, **ANAITASUNAREN 408.** alean Luis Azurmendi, Dimako tallistarekin izandako elkarrizketa argitaratu zen, baina inprenta-huts bategatik, artikulua hitzaurre barik agertu zen, artista herrikoi honen inzialak baik agertzen ez zirela.

Hona hemen, ba, bere izen osoa: Luis Azurmendi Zuazo.

JUAN AMEZTOIri ERANTZUNEZ

Euskera batuaren aurka eta prestamoen aurka daukazun jarrera hori nahiko zabaldua dago gure Euskal Herri honetan eta zure eskutitz horren bitartez ez dauskuzu gauza berri askorik esaten. Egia esan, nik ez dot uste beste hizkuntzetatik euskerak dituen prestamoak guztiz nazkagarriak izan behar dabezenik, baina zure eskutitz hori irakurtzean, azkena batez ere (fexari dagokiona), horrelako amorrua nabartzen dot latinaren aurka.

Horren garbizale bazina latin gehiago jakin behar zeunke eta ez, eskutitzan egiten dozun bezalaxe, azalean bakarrik gelditu "mar txoa" "epailla" esan behar dogula esanez.

Nire latin irakasle xarman garriak esan dausten legez zure karta horretan badira latinetik datorkiguzan hainbat berba, horreez zer egingo zeunke? Zergatik ez dituzu kendu hurrengo honek adibidez: "kontu" dinorzu zuk "computo"tik datorrela jakin barik, edo "Artista" "Ars artis"etik hartua, "Joko", "locus"etik, "Komunista" "Communis"etik ekarria, "Serbiziyo" latineko "Servitium"etik, "Muki" "Mucus"etik ekarri, eta "Abizen". **AB** hori latin aurrizki bat delarik edo "Ondo"ren ON hori "Bonns"etik datorrela susmatzen delarik.

Hobe zeunke latin gehixeago ikastea neuk egingo dodan bezalaxe:

Azken Anaitasuna-n Ametztoy jaunak euskara idatzari buruzko zenbait irizti azaltzen dizkigu, guk, donostiarrok, euskaraz nola idatzi behar dugun esanaz, etabar.

Dagoeneko, nik uste nuen garbi zegoela zer den euskara batua, zer euskalkiak, zer euskara idatzia edo literarioa, eta zer eskualde eta herri bakoitzean, mintzatzerakoan, duten ahozkatze berezia. Ez da horrela, dirudienez.


Trifol jaunak, hitz gutxitan, argi uzten du guzti hori, eta ez noa luzatzera.

Bakarrik, orain 18 urte, Andaluzian soldaduska egiten ari nintzela gertatutako pasadizu bat:

Egun haietan, kabo 1º, sarjento eta holakoek, zertarako ez dakit baina azterketak egin behar zituzten, eta oso urduri zebiltzan. Etorri zen azterketa eguna, eta han joan zen gure taldeko kabo-a ere zeharo hestututa. Gizon hau andaluziarra zen, Cadiz-eko herri txiki batekoa. Beste gauza askoren artean, honako galdera hau egin zienten: Zein da Jaungoikoaren Seme gizon egina? Gure kabuak, gaztelania akademikoa eta artifiziala alde batera utzia, bere herrixkan denak erabiltzen zuten gaztelania jator jatorrean, honela idatzi zuen paperean: **EFUGRITO.**

Agur bero bat denori.

M. Iriñdo (Donostia)



Donostian, Jorrailla 23

Trifol jauna ta Torrealdai jaunari ere bai.

la urte bat ba zan Torrealdai prailia'ri lenago beste batzun artian azkeneko eskutitza idatzi niola (Rusian barna ibillia izango da ta orain aien baimenarekin argitaratua)... ta orra nola orain gutxiena pentsatsen nuenean, (berak ez noski jakia, zergatik ixillik gordetzeko kontuak bai ziran) (konpesiyo ko kontuak). Trifol jaunak, beste praila batek argitaratu du nere eskutitza, bañan nik nai nuen erantzunik ez, bañan alaz da guzti nik konprendintzen det, zergatik beste eginkizun bearrezkorik eukiko du animak salbatzen.

Ez nekien Trifol jauna zu ere praila zifanik... ta gañera hehuusalduna... jzorionak eta aleluia...! askotan ikusi nuen zure firma "Hanahitasuna"ñ bañan bein bakarrik irakurri nuen zure artikuloa ta ikaratuta utzi nuen ainbeste itz internacional ikusi nituanian, beti pentsatzen nuen ruso jakintzuren bat zifala.

Arrigarria iruditu ko zaizu Trifol jauna ni ain marxista izanik nolaz ez ditudan ache geiago ipintzen nere eskutizian bañan ez arritu zergatik baserrian jaijo ta bizi aldegin nere soñatik eta jakia burua oso gogortua daukatelako ez naiz gauza jakiteko H zardia aurretiko edo atzetiko ipurtzulo tik sartu bear dan, orain bai "Anahitasuna" aldizkaria batzuetan propina ta guztiakin idazten det, bañan ez apuratu orregatik eta ziur egon zergatik ni Carrillo ta "Ortiz" eta "Hanaitasuna"ko praila guztiak baño gorriagoa naiz ta.

Arrazoi aundia dezu Trifol jauna zure errenkaran diozunean "serioegia den etxe honetan" bai alaxe da, marxista utzak zerate eta ori gutxitxo da gaur dan egunetarako, marxismo-leninismo osora iritxi bear dezute, bestela komentuko torrea zeuren buren gañera eroriko zaizute ta orduan akabo sopa eder be-roa.

Nik Itziar Urtasun idazle eme-guri-ederra Torrealdai prailiak baño askoz geiago maite det, nik Torrealdai santu-marxistak (ni marxistaleninista naiz) baño txanpon geiago eman dizkiot Bilbo'ko "Katu Beltza"ko kapillan ortan ez zalantzarik eduki.

Egia esan ez daukat damurik ondo egiañkin Torrealdai bezelaxe. Agur eta gora Kristo Errege ta bere endako judio dan Marx tar Karla, eta Beera jekide aberatz zerriak. Penintente bat.

Virgilio

1	A	2	B	3	C	4	D	5	G	6	H	7	I	8	K	9	LL	10	M	11	N	12	O	13	P	14	Q	15	R	16	T		
17	TT	18	A	19	E	20	F	21	G	22	J	23	N	24	O	25	P	26	R	27	S	28	P	29	Q	30	R	31	S				
32	C	33	D	34	G	35	H	36	J	37	LL	38	E	39	H	40	J	41	M	42	N	43	Q	44	R	45	S	46	T				
47	TS	48	TT	49	C	50	F	51	N	52	O	53	P	54	K	55	TX	56	B	57	H	58	J	59	L	60	M	61	N	62	P	63	S
64	T	65	TS	66	TX	67	B	68	J	69	H	70	N	71	TS	72	TT	73	TX	74	E	75	H	76	I	77	N	78	O				
79	R	80	L	81	M	82	N	83	N	84	TT	85	TX	86	A	87	K	88	LL	89	N	90	Q	91	TT	92	TX	93	E	94	H		
95	J	96	L	97	P	98	A	99	G	100	K	101	L	102	P	103	Q	104	T	105	TX	106	A	107	C	108	LL	109	H	110	S		
111	L	112	N	113	O	114	P	115	Q	116	LL	117	M	118	Q	119	TT	120	B	121	D	122	G	123	H	124	K	125	M	126	B		
127	E	128	H	129	R	130	C	131	D	132	N	133	N	134	F	135	G	136	H	137	TX	138	C	139	E	140	I	141	LL				
142	R	143	T	144	TS	145	B	146	K	147	A	148	C	149	D	150	E	151	F	152	TS	153	TT	154	E	155	G	156	A	157	J		
158	K	159	LL	160	N	161	TX	162	LL	163	TS	164	D	165	P	166	S	167	L	168	H	169	G	170	N	171	E						
172	TX	173	P	174	R	175	C	176	LL	177	J	178	D	179	I	180	LL	181	G	182	N	183	TT	184	T	185	TT	186	A	187	P		
188	LL	189	B	190	H	191	G	192	J	193	L	194	G	195	C	196	E	197	D	198	S	199	P	200	K	201	J	202	S	203	LL		
204	N	205	R	206	TT	207	H	208	J	209	T	210	O	211	TS	212	N	213	P	214	TX												

A. Frantses irautzaile.....	156	86	96	147	1	18	106	186			
B. Garia ebakita gero, sorcan dagoena.....	120	126	67	2	145	56	189				
C. Euskal abere mythiko.....	107	148	175	3	49	138	32	195	130		
D. Personaltasun.....	178	149	4	131	33	164	197	121			
E. Kantuan, hemengo jaunaren emazteak: "Ama, saldu nauzu bika bat bezala".....	127	154	38	93	19	74	139	171	196	150	
F. Hitler edo Goebbels, adibidez.....	134	20	151	50							
G. Ducados non erosten dituzun.....	181	135	169	155	34	5	99	21	194	122	191
H. 79 urte baino gehiago dituztenak.....	39	190	94	75	128	35	207	123			
I. Gose ez den.....	136	57	168	6							
J. Udazkeneko landare-hiltzaile (2 hitz).....	140	7	76	179	201						
K. Ogia erosten deneko denda.....	68	22	157	36	95	208	177	40	58	192	
L. Eguraldi berotako bizileku.....	200	158	87	124	8	54	146	100			
LL. "Euskal alfabetatzearen aita" lizen osoa; 2 hitz).....	59	167	96	101	80	193					
	176	111	108	9	180	141	159				
	37	88	188	203	162	116					

M. Ez beti.....	109	41	117	60	81	125	69	10		
N. Zeruko Argiaren indiarra (hitz elkartua).....	182	82	204	132	23	89	11	112		
N. Amorioak.....	51	24	12	61	77	160	42	133		
	212	170	83	70						
O. Handi ez den (bariantel).....	25	52	78	210	113					
P. Jeneral karlista.....	53	102	28	13	173	26	114	97	197	
	213	62	199	165						
Q. Badaezpadako.....	90	118	115	29	103	14	43			
R. Erromatar ubide.....	44	27	129	15	174	142	30	79	205	
S. Greziar mythologian, iturri-nymphak.....	63	110	31	166	202	198	45			
T. Gerra erdiko bake laburra.....	104	143	46	64	184	209				
TS. Igelaren ume.....	16	144	152	211	71	65	47	163		
TT. Lotsabako.....	48	17	206	91	119	153	185	84	183	177
TX. "...noazu bertso bat edo bi...".....	92	161	55	85	172	137	66	105	73	214

OHARRA

Helbideaz aldatzen baduzue, bidali iezaiguzue, mesedez, errebistarekin doan azken etiketa ere bai, bertan zure harpidezzenbakia, izena eta beste datuak beharrezkoak ditugularik. Egizu berdin gurekin edozein harremantetan, harpidezzenbakia aipatuz.

Si cambia de dirección, envíenos también la última etiqueta que acompaña a la revista indicando el número de suscripción y los demás datos necesarios. Para cualquier eventualidad es necesario que indique el número de suscripción.

Pour tout changement d'adresse prière de nous faire parvenir la dernière étiquette d'envoi de la revue en nous précisant votre numéro d'abonnement, votre nom et votre nouvelle adresse. Prière de faire ainsi pour toute autre communication avec nous. Merci.



**DINERO A
CUALQUIER HORA.**

**CREDITO EN
CUALQUIER SITIO.**



DIRUA ORDU GUZTIETAN

Ordu guztietan Kutxaren zerbitzuak zure mesedetan daude.

Hemen duzu gure Txatel Berdea. Txartel Berdearekin eragiketa guztiak, diru ateratzea, diru sartzea, etab. edozein ordutan egin dezakezu, gauean edo egunean, lanegunetan edo eta jaiegunetan. Txartel Berdeak ez du ezagutzen jairik.

Erlojua begiratu barik, behar dituzun soluziobideak zeure eskuetan daude:

- Edozein unetan dirua ateratzen.
- Dirua sartzen.
- Zure saldoa berehala ezagutzen.
- Taloi txekeak eskatzen.

KREDITUA EDOZEIN TOKITAN

Bidai ajentzietan, hoteletan, jate-txetan, dendetan, erostetxe handietan.

Bizkaian 2.000 toki baino gehiagotan.

Munduan zehar 2.600.000 tokitan.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartela erakutsirik **NONAHI**, txakur txiki bat ere gabe, erosiko duzu.

Horrela, ez duzu gainean dirurik eraman behar ez eta konturik atera behar.

Gauzez gozatzeko ez duzu itxaron behar. Pagatzeko itxaron behar duzu, gure kreditu osoa duzu eta.

ETA 5.000.000TAKO SEGURU DOHAIN BAT

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartelarekin harantz honantz ibiltzea ez da bakarrik eroso. Segurua baita.

Abioiez, trenez edo eta itsasuntziz egindako bidaiak txartelaz abonatzen badituzu, zuek eta zeure etxeok

istripuen kontrako aseguru bat duzue. 5.000.000 pztako aseguru hain zuzen. Dena debalde.

Horregaitik ere Bizkaiko Kutxaren Master Charge-a eduki eta erabili behar duzu.

Seguru gaude.

**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**



**BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA**

Estamos a su servicio para que Gane Más.



Abono de sueldos

El Servicio de Abono de Sueldos consiste en cobrar su sueldo a través de la Caja, evitando riesgos, disponiendo de la máxima comodidad en los cobros y pagos que tenga que efectuar, y disfrutando de muchas ventajas.

Soldaten Abonua

Soldaten Abonu-Zerbitzua honetan datza, alegia zeure soldata Kutxaren bidez kobratzen duzula, honela arriskuak baztertzen dituzularik, egin behar dituzun kobrantza eta ordainketetan erosotasunik haundiena duzularik, eta ondoko abantaila hauetaz baliatzen zarelarik.

111 Oficinas en Guipúzcoa

Primera ventaja: la comodidad que le supone poder resolver sus gestiones en cualquiera de nuestras sucursales.

111 Bulego Gipuzkoan

Gure sukurtsaletatik edozeinetan zure gestioak erabaki ahal izateak dakarkizun erosotasuna.

La red de Cajeros Automáticos más amplia de la provincia

Para realizar ingresos, retirar fondos, pedir talonario, solicitar extracto de cuenta, etc... tanto de día como de noche.

Probintziako Kutxazain

Automatikoen sarrerik hedatuena

Egunez nahiz gauez, sarrerak egin, fondoak atera, taloi-liburuskak eskatu, kontu-laburpena eskatu etab. egiteko.

Puntual información de sus operaciones

Zure eragiketaren orduko informazioa

Rapidez y seguridad

Bizkortasuna eta segurtasuna

Domiciliación de Ingresos y Pagos

En la Cuenta de Abono de Sueldos podrá domiciliar todos sus cobros: haberes, ingresos por transferencia, prestaciones del INSS e INSALUD tales como pensiones, accidentes, desempleo, etc., y efectuar cómodamente todos sus pagos: recibos de luz, agua, teléfono, gas, colegios, sociedades, contribuciones, impuestos, etcétera.

Sarrera eta Ordainketen helbideratzea

Soldaten Abonu-kontuan helbidera ditzakezu zeure kobrantza guztiak, (hartzekoak, transferentzia bidezko sarrerak, INSS eta INSALUDen laguntzak, adibidez pentsioak, istripuak, desentplegua, etab; halaber, erosotasun guztiz egin ditzakezu zeure ordainketa guztiak, (argi, ur, telefono, gas, ikastetxe, sozietate, kontribuzio, zerga, erabarren ordain-agiriak).

Tarjeta 6.000

Con la Tarjeta 6.000 podrá obtener dinero en efectivo en las 8.000 oficinas de las Cajas de Ahorros Confederadas y pagar sus compras en más de 300.000 establecimientos de todo tipo.

6.000 Txartela

6.000 Txartelaren bidez Aurrezki Kutxa Konfederatuetako 8.000 bulegotan dirua atera eta zeure eroskerak 300.000 establezimendu baino gehiagotan ordaintzeko modua daukazu.

Auto 6.000

Para adquirir carburante y pagar otras prestaciones para su vehículo en cualquier estación de servicio, talleres, garajes, etc...

6.000 Autoa

6.000 Autoa taloien bidez, zeure ibilgailuarentzat erregaia eta beste zerbitzuak lor ditzakezu.

Credito Automático

Por el hecho de cobrar su sueldo a través de la Caja podrá obtener en el acto un CREDITO AUTOMATICO y acceder a cualquiera de los restantes créditos de la Caja.

Kreditu Automatikoa

Zeure soldata Kutxaren bidez kobratzeagatik berehala erdozein lor

Juvenil, las Colonias Infantiles de Goyeneche y Ribavellosa, la Oficina de Jóvenes, Becas de estudio y la Ciudad Laboral Don Bosco, el Centro Cultural de Nazaret, los E.U.T.G., etc. donde se imparten estudios para su formación profesional o universitaria.

Kultur eta Gizarte-Ekintzak

Institutu onkológikoa, Buru-elbarrientzako ASPACEko diagnostiko eta ikerketa-zerbitzua, Literatur Sariketarak sail berezitan euskaraz eta gaztelaniaz, Pintura eta eskultura-lehiaketak, hitzaldien, emankizunen ikastaroak, etab.

Eta zure seme-alabentzat, Gaztetxoaren Elkartea, Goienerxe eta Ribavellosa-ko Haur-udalekuak, Gazteen Elkartea, ikasketa-beka eta itzikerak profesional edo unibertsitate-mailako ikasketak egiten diren "Don Bosco" Hiru Laborala, Nazaret Zentru Kulturala, G.U.T.I. etab. dauzkagu.



AHORROCAP80

Ahorrocap

Mensualmente, sorteos exclusivos para quienes utilizan el Servicio de Abono de Sueldos.

Ahorrocap

Soldaten Abonu-Zerbitzua darabiltenentzat bakarrik egiten diren hileroko zozketak.

Obras Sociales y culturales

Instituto Oncológico, ASPACE —Servicio de diagnóstico e investigación de la parálisis cerebral—, Premios literarios para especialidades en euskera y castellano, Certámenes de pintura y escultura, ciclos de conferencias, proyecciones, etc. Y para los jóvenes, nuestro Club

SERVICIO DE ABONO DE SUELDOS



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA